



AIARAKO UDALAK 2024ko OTSAILAREN 22an EGINIKO OHIKO BILKURAKO AKTA

PRESIDENTEA

Prudencio Otegui Echevarría jn.

ZINEGOTZIAK

Karmele Población Martínez and.
Iñigo Fraile Almanchel jn.
Iratxe Parro Uzquiano and.
Izaskun García Aresti and.
Irantzu Apodaca Sánchez and.
Gentza Alamillo Udaeta jn.
Iñigo Pinedo Vadillo jn.
Montse Angulo Solloa and.
Unai Campo Arenaza jn.
Susana Martín Benavides and.

Arespalditzan, udaletxeko bilkuren aretoan, bi mila eta hogeita lauko otsailaren hogeita bian, hemeretziak direnean, Udalbatza Osoa bildu da ohiko osoko bilkura egiteko. Prudencio Otegui Echevarría alkate jauna da burua eta albo batean adierazitako zinegotziak bertaratu dira, eta bilera deitu da Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46 b) artikuluan xedatutako aurrerapenarekin. Naiara Lazpita Marcos andrea da idazkaria.

IDAZKARIA

Naiara Lazpita Marcos and.

Alkate jaunak ongietorria egin die guztiei, eta, beste iruzkinik egin gabe, **GAI-ZERRENDAN** jasotako puntu hauek jorratzeari ekin diote:

1.- Onestea, bidezkoa bada, 2024ko urtarrilaren 18an egindako ohiko osoko bilkurako akta

Ez da gaiaren gaineko iruzkinik egin, beraz, urtarrilaren 18an eginiko ohiko osoko bilkuraren akta bozkatu da, eta bertaratutako zinegotziek aho batez onetsi dute.

2.- EH Bilduk aurkeztutako mozioa, trafiko astuna Zuhatzako errepidearen ezaugarrietara egokitzeko.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) hartu du hitza eta euskaraz mozioaren edukia aurkeztu du.

Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) hartu du hitza eta adierazi du bere taldea abstenitu egingo dela, mozioan ez baita daturik jasotzen. Ez dira ezagutzen errepideari buruzko datuak, ez dakigu zenbat trafiko dagoen; mozio bat jasateko datuak bildu behar dira, trafikoari eskatu ahal izango litzaizkioken; ez dakigu, ezta ere, foru-aurrekontuetan errepide horretarako ezer dagoen; horregatik guztiagatik, abstenitu egingo dira.



Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) hartu du hitza eta euskaraz adierazi du datuak biltzen ari direla. 2025erako, gaineratu du, errepide horretarako jarduketa bat dago, baina ez dago jakiterik zer gertatuko den baserriekin.

Ez da horri buruzko iruzkin gehiagorik egin, gaia bozkatu da, eta honako hau izan da emaitza:

ALDEKO BOTOAK: 6 (3 EH BILDU + 3 AIARA BATUZ).
ABSTENTZIOAK: 5 EAJ-PNV

IKUSI DA.- EH BILDUK aurkeztutako mozioa, trafiko astuna Zuhatzako errepidearen ezaugarrietara egokitzeko.

IKUSI DA.- 2024ko otsailaren 13ko Ingurumena, Mugikortasuna, Funtzio Publikoa eta Soziosanitarioa Informazio Batzordearen aldeko irizpena.

Udalbatzak, zinegotzien gehiengo osoz, honako hau ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- EH BILDUK aurkeztutako mozioa onestea, trafiko astuna Zuhatzako errepidearen ezaugarrietara egokitzeko. Honako hau dio hitzez hitz:

Mozioa Zuhatzako Errepideatik trafiko astuna murrizteko. Moción para reducir tráfico pesado por la carretera de Zuaza.

ARRAZOIA:

MOTIVO:

Zuhatza zeharkatzen duen A-3641 errepidetik igarotzen den trafiko astuna nabarmen handitu da azken urtean, hain zuzen ere Bilbotik Laudiora doan BI-625 errepideko zatian Bizkaiko Aldundiak garraio astunaren trafikoa zergapetzeko arkuak jarri zituenetik.

El tráfico pesado que pasa por la A-3641 que cruza Zuaza se ha incrementado considerablemente en el último año, concretamente desde que en el tramo de la BI-625 que va de Bilbao a Llodio la Diputación de Bizkaia instaló arcos para gravar el tráfico de transporte pesado.

Azpimarratzekoa da Zuhatzako errepidea, bertakoa, ez dela gai trafiko astuneko karga handiei eusteko, plataformaren estutasunagatik, dituen bihurtuneengatik eta etxeen hurbiltasunagatik; Zuhatza herria bera zeharkatzen du. Tokiko errepide horretako trafiko astunaren gorakadak hainbat kamioi istripu eragin ditu, eta, horren ondorioz, Arabako Bide Azpiegituraren Sailak seinaleak jarri ditu beste noranzko erreiarene inbasioa saihesteko, errepide horren arriskua agerian utziz.

Es de notar que la carretera de Zuaza, que es local, no es capaz de aguantar grandes cargas de tráfico pesado por la estrechez de la plataforma, las curvas que tiene y la cercanía de las casas; atraviesa el propio pueblo de Zuhatza. El aumento del tráfico pesado en esta carretera local ha provocado varios accidentes de camiones, lo que ha llevado al Departamento de Infraestructura Viaria de Álava a instalar señales para evitar la invasión del otro carril de sentido, poniendo de manifiesto el peligro de esta carretera.



Egoera horren jakitun, Aiarako Udal Gobernuak Arabako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentura jo du Zuatzako A-3641 tokiko errepidetik trafikoa astunaren joan-etorriak murrizteko, BI-625 errepidean arkuak ezarri aurretik trafikoa astunaren mailara itzultzeko eta zeharkatzen dituen herrietako beharretara egokitutako mugikortasuna sustatzeko, errepidea erabiltzen duten bizilagunen segurtasunerako. Sailaren erantzuna izan da egindako errepidea noizean behin zabalduko dela.

Horregatik guztiatik, Aiarako EH Bilduren Udal Taldeak honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkurak eztatadatu eta onar dezan:

- 1. Aiarako Udalak Arabako Foru Aldundiari eskatzen dio neurriak har ditzala Zuhatza zeharkatzen duen A-3641 tokiko errepidetik zirkulatzen duten ibilgailu astunen tipologia mugatzeko, errepidearen mugetara egokituz eta bizilagunen eta erabiltzaileen segurtasuna zainduz.*
- 2. Aiarako Udalak Arabako Foru Aldundiari eskatzen dio balora dezala Bizkaiko errepide-sarean, batez ere BI-625 errepidean, arkuak jartzeak Arabako errepideen trafikoan duen eragina; izan ere, bide alternatibo gisa erabil daitezke. Zehazki, A-3641 errepidea erabil daiteke Arabatik Bilbo handira iristeko, Kadaguako korridorean barrena (arkurik gabe), eta neurri eraginkorrak har ditzala, trafikoa astuna A3641 bezalako tokiko errepideetara desbideratu ez dadin. Izan ere, azken horiek ezin dute trafikoa astunaren tipologia hori bere gain hartu, ezta hartu ere”.*

Conocedor de esta situación, el Gobierno Municipal de Ayala se ha dirigido al departamento de Infraestructuras Viarias de la Diputación Foral de Álava para reducir los desplazamientos de tráfico pesado por la carretera local A-3641 de Zuaza, volver al nivel de tráfico pesado antes de la implantación de arcos en la BI-625 y promover una movilidad adaptada a las necesidades de las localidades por las que atraviesa, para la seguridad de los vecinos y vecinas usuarias de la carretera. La respuesta del Departamento ha sido que se van a realizar ampliaciones puntuales de la carretera ejecutada,

Por todo ello, el Grupo Municipal de EH Bildu de Ayala presenta la siguiente moción para su debate y aprobación por el Pleno:

- 1. El Ayuntamiento de Ayala insta a la Diputación Foral de Álava a que adopte medidas para limitar la tipología de vehículos pesados que circulan por la carretera local A-3641 que cruza Zuhatza, adaptándose a las limitaciones de la carretera y atendiendo a la seguridad de sus vecinos y usuarios.*
- 2. El Ayuntamiento de Ayala insta a la Diputación Foral de Álava a que valore el efecto que la implantación de arcos en la red de carreteras de Bizkaia, sobre todo en la BI-625, está teniendo en el tráfico de las carreteras alavesas que puedan estarse usando como rutas alternativas, en concreto el uso de la A-3641 para acceder desde Alava hacia el gran Bilbao a través de corredor del Cadagua (libre de arcos) y adopte medidas para eficaces para que el tráfico pesado de paso no se desvíe a carreteras locales como la A3641, que no pueden, ni deben, asumir esa tipología de tráfico pesado”.*



3.- Hasierako onespena ematea, bidezkoa bada, Aiarako Udaleko Administrazio Publiko Elektronikoa udal-ordenantza arautzaileari.

Udalbatzari puntu honi dagokion 2024ko otsailaren 13ko Ingurumena, Mugikortasuna, Funtzio Publikoa eta Soziosanitarioa Informazio Batzordearen aldeko irizpenaren berri eman zaio.

Ez da iruzkinik egin eta gaia bozkatu da, eta bertaratutako kideek aho batez onetsi dute (Udalbatza osatzen duten zinegotzi guztiek).

Hori dela bide, eta

IKUSI DA.- Administrazio Elektronikoa eredu tekniko ekonomiko berriaren eskeentzako sektore publikoaren erantzuna da. Hala, informazioaren teknologiak eta komunikazio-sareak ekonomia-, gizarte- eta kultura-jardueren erdian kokatu dira.

Herritarrak Elektronikoki Zerbitzu Publikoan Sartzeko ekainaren 22ko 11/2007 Lege indargabetuak dagoeneko bidea egin zuen, eta Administrazio Prozedura Erkidearen eta Sektore Publikoko Araubide Juridikoaren 39/2015 eta 40/2015 Legeek aurrerapausoak eman dituzte. Aurreko legeek aurreikusitakoaren ildotik, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea bultzatzeaz gain, onetsi dute herritarrek administrazio publikoekin baliabide publikoak erabiliz harremanetan jarduteko eskubidea dutela. Eta batetik, herritarren eskubidea onestea eta, bestetik, administrazioaren betebeharra dira legearen ardatz nagusia.

IKUSI DA.- Aiarako Udalaren esparruan administrazio-jardueraren funtzionamendu elektronikoari eta administrazio publikoak pertsonekin dituen harremanei dagokienez eskakizunak eta betekizunak eraginkor izateko elementuak arautzea xede duen Ordenantza beharrezkoa da, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legeak eta bat datozen gainerako xedapenek eta xedapen osagarriek ezartzen dutenaren arabera.

IKUSI DA.- Espedientean jasota dagoen Aiarako Udaleko Administrazio Publiko Elektronikoa udal-ordenantza arautzailearen proposamena.

IKUSI DA.- 2024ko otsailaren 13ko Ingurumena, Mugikortasuna, Funtzio Publikoa eta Soziosanitarioa Informazio Batzordearen aldeko irizpena.

IKUSI DA.- 2024ko otsailaren 19ko udal-idazkariaren aldeko txostena.

AINTZAT HARTU DIRA.- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 4., 22.2.d), 25., 49. eta 70.2 artikulua; Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 128. artikulutik 131.era bitartekoak eta 133. artikulua; apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Toki Araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen testu bateginaren 56. artikulua; eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen VI. Titulua.



Udalbatzak, zinegotziek aho batez adostuz ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- Hasiara batean onestea Aiarako Udaleko Administrazio Publiko Elektronikoren udal-ordenantza arautzailea; honela dio hitzez hitz:

Aiarako Udaleko Administrazio Publiko Elektronikoren udal-ordenantza arautzailea

AURKIBIDEA

<i>Zioen azalpena.</i>	7
<i>I. kapitulua. Xedapen orokorrak.</i>	8
<i>1. artikulua. Xedea.</i>	8
<i>2. artikulua. Aplikazio-eremu objektiboa.</i>	8
<i>3. artikulua. Aplikazio-eremu subjektiboa.</i>	9
<i>4. artikulua. Administrazio elektronikoren antolaketa-printzipioak.</i>	9
<i>5. artikulua. Administrazio-informazioaren hedakuntza elektronikorako printzipio orokorra.</i>	10
<i>6. artikulua. Administrazio-prozedura elektronikoren printzipio orokorrak.</i>	10
<i>II. kapitulua. Egoitza elektronikoa.</i>	11
<i>7. artikulua. Egoitza elektronikoa.</i>	11
<i>8. artikulua. Egoitza elektronikoa sortzea.</i>	11
<i>9. artikulua. Egoitza elektronikoren ezaugarriak.</i>	11
<i>10. artikulua. Jakinarazpenen identifikazio- eta segurtasun-baldintzak.</i>	12
<i>11. artikulua. Egoitza elektronikoren edukia eta zerbitzuak.</i>	12
<i>III. kapitulua. Ediktuen/iragarkien taula elektronikoa.</i>	13
<i>12. artikulua. Xedea.</i>	13
<i>13. artikulua. Organo eskudunak.</i>	14
<i>14. artikulua. Funtzionamendua.</i>	14
<i>15. artikulua. Epeak zenbatzea.</i>	14
<i>16. artikulua. Datuak babestea.</i>	15
<i>IV. kapitulua. Identifikazioa eta sinadura elektronikoa.</i>	15
<i>17. artikulua. Identifikazioari eta sinadura elektronikoi buruzko arau orokorrak.</i>	15
<i>18. artikulua. Eskuz idatzitako sinadurari eta sinadura biometrikoari buruzko espezialitateak.</i>	15
<i>19. artikulua. Toki-erakundearen identifikazioa eta sinadura elektronikoa automatizatua.</i>	15
<i>20. artikulua. Egiatzapen-kode segurua.</i>	16
<i>V. kapitulua. Erregistro elektronikoa.</i>	16
<i>21. artikulua. Erregistro elektronikoa orokorra.</i>	16
<i>22. artikulua. Erregistro elektronikoa orokorraren funtzionamendua.</i>	16
<i>23. artikulua. Idazkiak, eskaerak eta jakinarazpenak ezestea.</i>	18
<i>24. artikulua. Erregistro orokorrean epeak zenbatzea.</i>	18



<i>25. artikulua. Administrazio-prozedurako interesdunek aurkeztutako agiriak.</i>	19
<i>VI. kapitulua. Jakinarazpena administrazio-prozedura elektronikoetan.</i>	20
<i>26. artikulua. Jakinarazpena egin eta helaraztea.</i>	20
<i>VII. kapitulua. Agiriak kudeatzea.</i>	20
<i>27. artikulua. Kopia elektronikoak eta kopia elektroniko kautotuak.</i>	20
<i>28. artikulua. Akten liburua eta ebazpenen liburua.</i>	21
<i>29. artikulua. Artxibo elektronikoa.</i>	21
<i>VIII. kapitulua. Bide elektronikoa erabiliz izapideak eta prozedurak eranstea.</i>	22
<i>30. artikulua. Izapide elektronikoari erantsitako prozedurak.</i>	22
<i>31. artikulua. Administrazio-jarduketa automatizatuak.</i>	22
<i>Xedapen gehigarriak.</i>	23
<i>Lehenengo xedapen gehigarria.</i>	23
<i>Bigarren xedapen gehigarria.</i>	23
<i>Hirugarren xedapen gehigarria.</i>	23
<i>Laugarren xedapen gehigarria.</i>	23
<i>Azken xedapenak.</i>	23
<i>Azken xedapenetatik lehenengoa.</i>	23
<i>Azken xedapenetatik bigarrena.</i>	24



Zioen azalpena.

Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak (IKT) garatzearen ondorioz, bizitzaren arlo guztietan aldaketak sortzen ari dira. Informazioaren gizarteak informazioa kontsumitzeko moduan paradigma aldatzea dakar. IKTek gure bizimodua goitik behera aldatu dute, eta ondasun eta zerbitzu berriak asmatu dira, bai eta merkaturatzeko eta kobratzeko metodo berriak eta informazioa helarazteko aukerako baliabideak ere, beraz, pertsonen arteko harremanetan aldaketa adierazgarriak daude eta, ondorioz, gauza bera gertatu da administrazio publikoen eta herritarren arteko harremanetan.

Administrazio Elektronikoa eredu tekniko ekonomiko berriaren eskeentzako sektore publikoaren erantzuna da. Hala, informazioaren teknologiak eta komunikazio-sareak ekonomia-, gizarte- eta kultura-jardueren erdian kokatu dira. Herritarrek Elektronikoki Zerbitzu Publikoan Sartzeko ekainaren 22ko 11/2007 Lege indargabetuak dagoeneko bidea egin zuen, eta Administrazio Prozedura Erkidearen eta Sektore Publikoko Araubide Juridikoaren 39/2015 eta 40/2015 Legeek aurrerapausoak eman dituzte. Aurreko legeek aurreikusitakoaren ildotik, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea bultzatzeaz gain, onetsi dute herritarrek administrazio publikoekin baliabide publikoak erabiliz harremanetan jarduteko eskubidea dutela. Batetik, herritarren eskubidea onestea eta, bestetik, administrazioaren betebeharra dira legearen ardatz nagusia. Hona hemen administrazio elektronikoaren definizioa: «administrazio publikoetan IKTak erabiltzea, antolaketa-aldaketekin eta gaitasun berriekin batera, zerbitzu publikoak eta prozesu demokratikoak hobetzeko eta politika publikoekiko babesa indartzeko» (Europako Batzordea).

Herritarren ikuspegitik, «pertsonen zenbait eskubide» onartzen dira, eta garrantzitsuena da administrazioarekin harremanetan aritzeko baliabidea hautatzea. Baliabide hori pertsona juridikoen eta pertsona fisiko zehatzen kasuan halabeharrez elektronikoa izango da.

Lege-erreforma ekarri duen beste printzipio bat da administrazio-simplifikazioa eta erantzukizunpeko adierazpena aurkezteko aukeran islatzen da nagusiki. Horren bidez, azaltzen da eskatzen diren eskubideak onesteko legezko eskakizunak betetzen direla (39/2015 Legearen 69. artikulua), edozein administrazio publikok egin duen agiririk ez aurkezteko eskubideaz gain. Zalantzarik gabe, ahal den neurrian, administrazioaren eta herritarren artean harremanak izateko identifikazio elektronikoko sistemen erabilera orokortzeak ere simplifikazioa ekarri du, eta legeak zorrozki adierazten duen ustezkoetan baino ez da sinatu beharko. Administrazioaren ikuspegitik, ordea, lehenik eta behin eskubideak eraginkor izateko mekanismoak ezarri behar dira.

Barnean, prozedurak oso-osorik elektronikoa izan behar du: erregistroa elektronikoa eta bakarra da, eta jatorrizko agiri elektronikoen edo paperean aurkeztutako jatorrizkoen kopia kautotuen sarrera erregistratuko da. Espedientea ofizioz eta baliabide elektronikoak erabiliz bultzatuko da. Aurkibide elektroniko bat da, eta agiri elektronikoak (frogak, txostenak, irizpenak...) izango ditu, elektronikoki izapidetu eta sinatu ostean. Espedienteak izapidetzeari dagokionez, gakoa sinadura elektronikoa da. Hala, prozedura izapidetzeko orduan erantzukizunen bat duten langile publiko guztiek sinadura-ziurtagiria izan beharko dute, zorrozki sinatzeko edo izapideak egin ala informazioa bidaltzeko. Eta langile publikoarekin zuzenean lotutako sinadura elektronikoarekin batera, azpimarratzekoa da funtsean erakunde, organo edo denborako zibiluen bidez administrazio-jarduketa automatizatua orokortu izana. Hitz batez, ezinbestekoa da prozedurari eta araubide juridikoari buruzko lege berrietara



egokitzea bai eta administrazio-sinplifikazioaren bidez administrazioaren eta sektore pribatuaren kostuak aritzea helburu duten beste batzuetara moldatzea ere (bereziki gardentasunari buruzkoa, prozedura elektronikorekin duen konexioa dela eta); ondorioz, justifikatuta dago ordenantza hau onestea.

I. kapitulua. Xedapen orokorrak.

1. artikulua. Xedea.

- 1. Ordenantza honen xedea da Aiarako Udalaren (aurrerantzean, “toki-erakundea” edo “toki-erakunde hau”) esparruan administrazio-jardueraren funtzionamendu elektronikoki eta administrazio publikoak pertsonekin dituen harremani dagokienez eskakizunak eta betekizunak eraginkor izateko elementuak arautzea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legeak eta bat datozen gainerako xedapenek eta xedapen osagarriek ezartzen dutenaren arabera.*
- 2. Ordenantza hau arautzeko ahalmenaren eta udalaren auto-antolaketaren babesean ematen da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzeko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 4. artikulua xedatutakoaren ildotik eta arauaren 70.bis 3 artikulua xedatutakoari jarraikiz.*

2. artikulua. Aplikazio-eremu objektiboa.

- 1. Ordenantza hau aplikaziokoa izango da toki-erakunde hau partaide den jardueretarako eta, zehazki, honako hauetarako:*
 - a) Herritarrekin izandako harremanak, baldin eta harreman juridiko-administratiboak badira.*
 - b) Herritarren kontsultak, toki-erakundeak eskura dituen administrazioaren informazio publikoa eta administrazio-datuak eskatzen dituztenean.*
 - c) Administrazioaren izapideak eta prozedurak, ordenantza honek aurreikusitakoarekin bat.*
 - d) Bere ahalmenak erabiliz toki-erakundeak eskuratutako informazioaren tratamendua.*
 - e) Egoitza elektronikoa.*
 - f) Iragarkien/ediktuen taula elektronikoa.*
 - g) Erregistro elektronikoen funtzionamendua.*
 - h) Baliabide elektronikoen bidez jasotako eta ekoizitako dokumentazioa eta artxibo elektronikoa kontserbatzen direla bermatzeko neurriak zehaztea.*
- 2. Halaber, ordenantza honen printzipio orokorrak aplikaziokoak izango dira herritarren komunikazioetarako, baldin eta administrazio-prozeduraren arauen mende ez badaude, eta bereziki oharrak eta gorabeherak jakinarazteko, erreklamazioak eta kexak aurkezteko, iradokizunak formulatzeko, toki-organoei galderak eta eskeak egiteko eta bestelako partaidetza-moduetarako, berariaz araututa ez daudenean.*



3. artikulua. Aplikazio-eremu subjektiboa.

Ordenantza hau honako hauei aplikatuko zaie:

- *Toki-erakunde honetako administrazio-organo, -arlo eta -unitateei.*
- *Toki-erakunde honekin komunikatzeko baliabide elektronikoak erabiltzen dituzten pertsona fisiko eta juridikoei.*

4. artikulua. Administrazio elektronikoaren antolaketa-printzipioak.

Udal-administrazioaren jarduketa, orokorrean, eta administrazio elektronikoa bultzatzeari buruzkoa, bereziki, honako printzipio orokor hauen arabera arautuko dira:

- 1. Herritarrentzako zerbitzua. Administrazioaren informazioarekiko, izapideekiko eta prozedurekiko atzipen elektronikoa bultzatuko du administrazio-gardentasunaren, gertutasunaren eta herritarrentzako zerbitzuaren printzipioak eraginkortasun handiagoaz eskuratzeko.*
- 2. Emakumeen eta gizonen berdintasuna: genero-ikuspegia herritarrekin baliabide elektronikoen bidez antolatutako harremanetan txertatzea bermatuko du.*
- 3. Administrazioa sinplifikatzea. Administrazio elektronikoaren teknikak erabiltzeak dakartzan eraginkortasuna aprobetxatuko du. Bereziki, garrantzitsutzat jotzen ez diren izapide eta jarduketa guztiak ezabatuko dira, eta administrazio-prozedurak nahiz -prozesuak aplikazioko araudiaren arabera berriz diseinatuko dira, administrazio-prozesuen efikazia eta eraginkortasuna maximizatzeke.*
- 4. Baliabide elektronikoak bultzatzea. Jardueretan eta, batik bat, herritarrekin harremanetan, lehenasunez, baliabide elektronikoak erabiltzea bultzatuko du, beraz, giza baliabide eta baliabide material egokiak aplikatu beharko ditu, eraginkorrak izateko neurriak hartzeaz gain. Ildo horri jarraikiz, baliabide elektronikoak erabiltze aldera, udal-administrazioak pizgarriak zehaztu ahalko ditu.*
- 5. Neutraltasun teknologikoa. Ordenantza honetan arautzen diren jarduketak egitea bermatuko du, erabiltzen diren tresna teknologikoak gorabehera.*
- 6. Gardentasuna. Baliabide elektronikoak erabiltzean administrazioaren informazioaren gehieneko hedapena, publikotasuna eta gardentasuna sustatuko dira, artxiboak eta jarduketak kontuan hartuta eta gainerako ordenamendu juridikoarekin eta ordenantza honek ezartzen dituen printzipioekin bat etorriz.*
- 7. Elkarreragingarritasuna. Herritarrenganako zerbitzua eta kudeaketaren eraginkortasuna hobetzeko, udal-administrazioak beste administrazio publiko, elkargo profesional, elkarte eta erakunde batzuekin hitzarmenak, akordioak eta kontratuak zehaztuko ditu. Aurrekoaren harira, lehenasunezko harremana ezarriko da Arabako Foru Aldundiarekin, Toki Araubidearen Oinarriak arautzeko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 36. artikulua xedatutakoaren babesean.*
- 8. Partaidetza. Partaidetzaren eskubideak eta, batez ere, eskatzearen eskubidea, entzunaldiaren eta jendaurreko informazioaren eskubideak, herritarren ekimena nahiz kontsultak baliatzean eta kexak, erreklamazioak zein iradokizunak aurkeztean baliabide elektronikoak erabiltzea sustatuko du.*
- 9. Elebitasuna: herritarrek udal-administrazioarekin baliabide elektronikoen bidezko harremanetan euskara eta gaztelania erabiltzea bermatuko du, unean-unean indarrean dagoen araudiaren arabera.*



5. artikulua. Administrazio-informazioaren hedakuntza elektronikorako printzipio orokorra.

Baliabide elektronikoen bidez interes orokorreko administrazio-informazioa eta udal-administrazioak ezinbestez publiko egin behar duena honako printzipio hauekin bat etorri behar da:

- 1. Irisgarritasuna eta erabilgarritasuna. Intereseko informazioa azkar, modu seguruan eta ulergarrian eskuratzeko sistema errazak erabiltzen direla bermatuko da.*
- 2. Udal-administrazioak argitaratzen duen informazioa zehatza izango da. Udal-administrazioak bermatuko du informazioa elektronikoki eskuratzean agiriak papereko euskarrian edo jatorrizko agiriaren euskarrian bezalako eduki zehatza eta xehea dutela.*
- 3. Eguneratzea. Udal-administrazio organoek administrazio-informazioa eguneratuta izango dute, baldin eta kanal elektronikoen bidez eskuragarria bada. Argitalpen elektronikoen eguneratze-data azalduko da.*
- 4. Datu pertsonalak babesteko bermea. Udal-administrazioak unean-unean eskura dagoen teknologia aprobetxatuko du datu pertsonalak babesteari atxikitako eskubideak bermatzeko.*
- 5. Atzipen unibertsaleko informazioa kontsultatzea. Aurretiaz inolako identifikaziorik gabe, administrazio-informazioa atzitzea bermatuko da, indarreko legediaren arabera informazioa atzipen orokorrekoa bada.*
- 6. Hizkuntza-eskubideak erabili daitezkeela bermatzea: Udaleko administrazio-informazioaren hedapen elektronikoak herritarrei legeek onartzen dituzten hizkuntza-eskubideak erabiltzeko aukera bermatuko die, bereziki, administrazio publikoan euskara erabiltzeari dagokiona. Interes orokorreko administrazio-informazioa eta ezinbestez publiko egin behar duena euskaraz eta gaztelaniaz hedatuko da.*

6. artikulua. Administrazio-prozedura elektronikoen printzipio orokorrak.

Udal-administrazioaren esparruan administrazio-izapideak elektronikoki izateko honako printzipio orokor hauei erreferentzia egingo zaie:

- 1. Legezketasuna. Udal-administrazioak herritarren berme juridikoen osotasuna mantentzen dela ziurtatuko du, aintzat hartuta administrazio publikoen araubide juridikoa eta administrazio-prozedura erkidea arautzen dituen legedia.*
- 2. Baliabideen intermodalitatea. Ordenantza honek aurreikusten dituen baldintzetan, baliabide baten bidez hasten den prozedura bestelako bitartez jarraitu ahalko da, betiere prozeduraren osotasuna eta segurtasun juridikoa ziurtatzen badira. Bide elektronikoz irisgarriak diren izapideak eta prozedurak udalak zehazten duen kanal eta baliabide elektronikoen bidez gauzatu ahalko dira.*
- 3. Proporzionaltasuna. Udal-administrazioak bermatuko du izapideen eta jarduketan izaerarekiko eta inguruabarrekiko segurtasun-bermeak eta -neurriak baino ez direla hartzen eta eskatzen diren helbururako zorrozkoki beharrezkoak diren datuak bakarrik erabiltzen dituela.*



II. kapitulua. Egoitza elektronikoa.

7. artikulua. Egoitza elektronikoa.

- 1. Egoitza elektronikoa herritarrentzako helbide elektroniko eskuragarria da, eta titulartasuna, kudeaketa eta administrazioa toki-erakunde honi dagozkio bere eskumenak erabiliz.*
- 2. Toki-erakunde honek bere egoitza elektronikoa du, bakarra organo guztietarako, eta bertan bere erakunde eta organismo publikoak eta oso-osorik kapital publikoa duten mendeko toki-sozietateak sartu ahal izango ditu.*
- 3. Egoitza elektronikoaren bitartez eskuratu daitezkeen informazioaren eta zerbitzuen osotasunari, egiazkotasunari eta eguneraketari dagokionez, erantzukizuna toki-erakundeak bere gain hartuko du, eta bermatuko ditu honako printzipio hauek: publikotasun ofiziala, erantzukizuna, kalitatea, segurtasuna, eskuragarritasuna, irisgarritasuna, neutraltasuna, elkarreragingarritasuna eta trazabilitatea. Iradokizunak eta kexak formulatzeko baliabide osagarriak identifikatuko dira, eta beharrezkoak direnerako jakinarazpen seguruak ezartze aldera sistemak zehaztuko dira.*

8. artikulua. Egoitza elektronikoa sortzea.

- 1. Egoitza elektronikoa Alkatetzaren edo berak eskuordetzen duen Udalbatzako kidearen ebazpenez sortuko da. Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta honako hauek definituko ditu, gutxienez:*
 - a) Egoitzaren aplikazio eremua (gutxienez Aiarako Udala), egonez gero, mendeko erakundeak, organismoak eta sozietateak barne izan ditzakeela.*
 - b) Egoitzaren erreferentziazko helbide elektronikoaren identifikazioa.*
 - c) Titularra eta egoitza elektronikoa nahiz egoitza horretan herritarren esku jarritako zerbitzuak kudeatu eta administratzearen organo arduraduna/k identifikatzea.*

9. artikulua. Egoitza elektronikoaren ezaugarriak.

- 1. Egoitza elektronikoaren bidez toki-erakundeak, beste administrazio publiko batzuek edo herritarrek baliabide elektronikoak erabiliz kautotu behar dituzten jarduketak, prozedura eta zerbitzu guztiak egingo dira. Gainera, zerbitzuak ematean eraginkortasuna eta kalitatea direla bide, organo eskudunak erabakitzen dituen jarduketak, prozedurak eta zerbitzuak gauzatu ahalko dira, kontratisten eta emakidadunen zerbitzuak barne, beren kontratu agirietan zehaztutako baldintzetan.*
- 2. Egoitza elektronikoaren bidez eskuratu daitezkeen informazioari eta zerbitzuei buruzko osotasuna, egiazkotasuna eta eguneraketa bermatuko dira.*
- 3. Egoitza elektronikoan informazioak, zerbitzuak eta transakzioak argitaratzen direnean, irisgarritasunaren eta erabileraren printzipioak errespetatuko dira, gaiari buruz ezarrita dauden arauen, estandar irekien eta, bidezkoa bada, herritarrek orokorrean erabiltzen dituzten gainerakoen arabera.*
- 4. Egoitza elektronikoak sistemak izango ditu beharrezkoa denean jakinarazpen seguruak zehazteko.*



5. Egoitza elektronikoa egoitza elektronikoaren ziurtagiri onartuak edo kualifikatuak erabiliko ditu identifikatu eta jakinarazpen segurua bermatzeko.
6. Egoitza elektronikoko zerbitzuak eguneko 24 orduz eraginkorrak izango dira, urteko egun orotan. Arrazoi teknikoak direla eta, egoitza elektronikoa edo zenbait zerbitzu eraginkorrak ez izatea aurreikusten bada, erabiltzaileei gehieneko aurrerapenez jakinaraziko zaie, eskura dituzten aukerako kontsulta-baliabideak azaltzeaz gain.
7. Toki-erakunde honen egoitza elektronikoa Espainiako egun eta ordu ofizialak kontuan hartuko ditu.

Segurtasun Eskema Nazionala arautzen duen maiatzaren 3ko 311/2022 Errege Dekretuaren 12.2) artikulua arabera, Administrazio elektronikoaren zerbitzua ematen duen zuzenbide publikoko erakundeak onartzen dituen erantzukizunen kalterik gabe, toki-erakunde honen sailek eta unitateek beren eskumenen eremuan egoitza elektronikoetan sartzen dituzten informazioaren eta izapideen nahiz zerbitzuen osotasunaz, egiazkotasunaz eta eguneraketaz erantzungo dute. Zerbitzu eskuragarrietara atzipen kanalak, bai eta iradokizunak eta kexak formulatzekoak ere honako hauek izango dira: elektronikoa, aurrez aurrekoa eta posta bidezkoa. Kanal elektronikoa Internet bidez antolatuko da; aurrez aurrekoa edo posta bidezkoa, berriz, toki-erakunde honen herritarren arretarako bulegoen (HAZ) bitartez.

10. artikulua. Jakinarazpenen identifikazio- eta segurtasun-baldintzak.

1. Toki-erakunde honen eta horri lotutako edo haren mendeko erakunde ala entitate autonomoen helbide elektronikoek egoitza elektronikoaren izaera badute, argi eta garbi adieraziko dute ikusgai den toki batean.
2. Egoitza elektronikoa irisgarri izango du bere sorrera-tresna zuzenean edo Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean egindako argitalpenerako estekan.
3. Egoitza elektronikoa eusten dituzten informazio-sistemek erabiltzen dituzten informazioen konfidentzialtasuna, eskuragarritasuna eta osotasuna bermatuko dituzte, Elkarreragingarritasunaren Eskema Nazionalarekin eta Segurtasunaren Eskema Nazionalarekin bat etorriz.

11. artikulua. Egoitza elektronikoaren edukia eta zerbitzuak.

1. Egoitza elektronikoa gutxienez honako eduki hauek aintzat hartuko ditu:
 - a) Sorrera egintza, zuzenean edo Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean egindako argitalpenerako estekan. Toki-erakunde honen esparruan egoitza sortzeko araudia, administrazio elektronikoaren ordenantza eta administrazio elektronikoa garatzeko gainerako xedapenak, bai eta sorrera-egintza, zuzenean edo Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean egindako argitalpenerako estekan.
 - b) Egoitzaren beraren, egoitzako organo titularren, eta egoitza elektronikoan eskuratu daitekeen zerbitzu eta transakzio bakoitzari dagokion osotasunaren, egiazkotasunaren eta eguneraketaren organo eskudun arduradunen identifikazioa, bai eta eskura jartzen diren prozedura eta izapideak kudeatuko dituzten organo eskudun arduradunena ere.
 - c) Egoitza elektronikoa edo informazio baliokidea behar bezala erabiltzeko informazioa, nabigazioko egitura eta atal eskuragarriak zehaztuta, bai eta jabetza intelektualekin, datu pertsonalekin eta irisgarritasunarekin zerikusia duena ere.
 - d) Egoitzak onartzen dituen ziurtagiri digitalen zerrenda.



- e) *Onartzen diren sinadura elektronikoaren sistemak.*
 - f) *Erregistro elektronikoan sartu eta hura erabiltzeko eskakizun teknikoak.*
 - g) *Erregistro elektronikoa eta bere eguneraketaren eduki osoa, egun baliogabeen egutegia aipatuz.*
 - h) *Gertatzen den edozein gorabehera teknikori buruzko informazioa, baldin eta eskubidea erabiltzeko beharrezkoa izanda, sistema edo aplikazio baten ohiko funtzionamendua galarazten badu. Halaber, amaitu gabeko epearen luzapen zehatza adieraziko da.*
 - i) *Gardentasunaren Atarirako esteka (<https://aiarakoudala.eus/es/ayuntamiento-transparencia/informacion-basica-del-ayuntamiento>)*
2. *Toki-erakunde honen egoitza elektronikoak interesdunen esku, gutxienez, honako zerbitzu hauek jarriko ditu:*
- a) *Egoitza elektronikoan zerbitzu eskuragarrien zerrenda eta eskuratzeko identifikazio-baliabideak eta -kanalak. Egoitza elektronikoan izapide eskuragarriren bat eginez gero, erregistroan idatzohar bat ipiniko da.*
 - b) *Kasuan-kasuan eskudunak diren organoen aurrean iradokizunak eta kexak gauzatzeko esteka.*
 - c) *Egoitzako ziurtagiriak egiaztatzeko sistema, zuzenean eta doan irisgarri.*
 - d) *Egoitzaren barruko organoen, organismo publikoen edo zuzenbide publikoko erakundeen zigilu elektronikoak egiaztatzea.*
 - e) *Egoitzaren esparruan organoek, organismo publikoek eta zuzenbide publikoko erakundeek emandako agirien egiazkotasuna eta osotasuna begiratzea, baldin eta urriaren 1eko 40/2015 Legeak xedatzen duen edozein sinadura-sistemaren bidez sinatu badira eta egiaztapen-kode seguru bat sortu bada.*
 - f) *Zerga-informaziora eta gaituta dauden ordainketa telematikoaren kanaletara atzipena.*
 - g) *Hirugarrenen (pertsone fisikoak eta juridikoak) araudiak baimentzen dituen dokumentu eta espediente elektronikoetarako atzipena, eta hirugarren horiek interesdun diren espedienterako atzipena. Espediente elektronikoak itxi edo amaitu zirenetik bost urte igaro ondoren, online kontsultaren prozeduratik kanpo geratuko dira.*

III. kapitulua. Ediktuen/iragarkien taula elektronikoa.

12. artikulua. Xedea.

1. *Ediktuen/iragarkien taulari esker, baliabide elektronikoak erabiliz arau juridikoaren edo ebazpen judizialaren babesean ediktuen bidez argitaratu edo jakinarazi behar den informazioa eskuratuko da.*
2. *Ediktuen/iragarkien taula udalaren egoitza elektronikoan txertatuta egongo da. Horren bidez argitaratuz gero, ofizialtzat eta kautotutzat joko da, eta ondore guztietarako iragarkien taula fisikoan argitaratzea ordeztuko du, baliabide horretan informazio ondore hutserako egotearen kalterik gabe. Epeak zenbatze aldera, ediktuen argitalpen-eguna eta -ordua egiazta dadin bermatzeko mekanismoa ezarriko da.*



3. *Prozedurari buruzko arauak ediktuen/iragarkien taula elektronikoa argitaratzearen gainean ezer aipatzen ez duenean, ez da argitaratu beharko, interes publikoko zioak behar bezala arrazoitu ondoren, argitaratzea justifikatzen denean izan ezik.*
4. *Alkatetza-Udalburutzaren edo berak eskuordetzen duenaren instrukzioz zehaztuko dira argitaratu behar diren ediktuen/iragarkien ezaugarriak eta gainerako alderdi formalak administrazio-erantzukizunei dagokienez.*

13. artikulua. Organo eskudunak.

Idazkaritzaren eskumena da arloko administrazio-unitate eskudun bakoitzaren bitartez ediktuen/iragarkien taula elektronikoa argitaratzeko testuak txertatu daitezzen agintzea.

14. artikulua. Funtzionamendua.

1. *Ediktuen/iragarkien taula elektronikoa bakarria izango da, formatu digitala emango zaio eta aplikazioko legezko zehaztapenei erreparatuko die.*
2. *Iragarkien taula elektronikoa antolaketa- eta funtzionamendu-arauek une oro bermatu beharko dituzte honako hauek:*
 - a) *Iragarkiak eta ediktuak txertatzea edukiaren eskuragarritasun, egiazkotasun eta osotasunaren baldintzapean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 17.2 artikulua xedatutakoaren arabera. Bereziki, dagozkion epeak zenbatze aldera, ediktuen argitalpen-eguna eta -ordua egiazta dadin bermatzeko mekanismoa ezarriko da.*
 - b) *Dibertsitate funtzionala duten pertsonen kontsultatzeko irisgarritasun-baldintzak eta bilakaera teknologikoarekiko etengabeko moldapena.*
 - c) *Argitalpen-eguna eta -ordua eta taulan erakusteko epea modu frogagarrian egiaztatzeko ebidentzia elektronikoak idatziz jasota uztea.*
3. *Egoitza elektronikoa bidez ediktuen/iragarkien taula elektronikoa doan sartuko da, eta kontsultatzeko ez da identifikazio mekanismorik eskatuko. Internet bidez kontsultatu ahalko da, bai eta toki-erakunde honen atzipen elektronikoko puntuetan eta herritarren arreta bulegoetan ere.*
4. *Ediktuen/iragarkien taula elektronikoa eskuragarri izango da eguneko 24 ordutan, urteko egun orotan. Arrazoi teknikoak direla eta, eraginkorra ez izatea aurreikusten bada, erabiltzaileei gehieneko aurrerapenez jakinaraziko zaie, eskura dituzten aukerako kontsulta-baliabideak azaltzeaz gain.*

15. artikulua. Epeak zenbatzea.

1. *Iragarkiak edo ediktuak egintza edo espediente zehatzean zehazten den epearen barruan argitaratuko dira ediktuen/iragarkien taulan.*
2. *Xede horrez, eguna eta ordua denbora zigilatze sistemaren bidez sinkronizatuko dira eta, nolana ere, Elkarreragingarritasunaren Eskema Nazionala arautzeko arauak edo aplikazioko arauak xedatutakoarekin bat etorri.*



3. *Artikulu honetan aurreikusten ez denerako, epeak zenbatzeko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatutako arauak aplikatuko dira.*

16. artikulua. Datuak babestea.

Datu pertsonalak dituzten ediktuak edo iragarkiak Datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak eta hura garatzeko xedapenek xedatutakoari zorrozki jarraikiz idatziko dira. Halaber, kontuan hartuko dituzte Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legea eta arloan aplikaziokoa den gainerako araudia.

IV. kapitulua. Identifikazioa eta sinadura elektronikoa.

17. artikulua. Identifikazioari eta sinadura elektronikoi buruzko arau orokorrak.

1. *Interesdunek toki-erakunde honen aurrean modu digitalean identifikatzeko aukera izango dute. Xede horrez, aurretik erabiltzaile gisa erregistroa duten sistemak erabiliko dituzte, jarduketarako eskatzen den segurtasun-mailaren arabera identifikazio nahikoa bermatze aldera. Aplikazioko legediak eta, bereziki, administrazio elektronikoen eremuan Segurtasunaren Eskema Nazionala arautzen duen legediak ezarriko dituzten baldintzak.*
2. *Hala, Euskadiko administrazio publikoek onetsita dituzten identifikazio elektronikoko sistemak onartuko dira, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 9. artikulua ezartzen duenarekin bat etorriz, aurreko idatz-zatian aurreikusitako baldintza berdinetan.*
3. *Zio justifikatua izan ezean, toki-erakundearentzat doako identifikazio elektronikoko sistemak erabiliko dira, eta elkarreragingarritasunari buruzko arauak beteko dituzte.*
4. *Legez eskatu daitekeenean, interesdunek elektronikoki sinatu ahalko dute identifikazio elektronikoko edozein baliabide eta konfiantza zerbitzuen legediak aurreikusitako edozein baliabide erabiliz, betiere jarduketarako eskatzen den segurtasun-mailaren arabera, elektronikoki borondatearen egiazkotasuna eta baimena nahikoa ziurtatzen uzten badituzte. Aplikazioko legediak eta, bereziki, administrazio elektronikoen eremuan Segurtasunaren Eskema Nazionala arautzen duen legediak ezarriko dituzte baldintzak.*

18. artikulua. Eskuz idatzitako sinadurari eta sinadura biometrikoari buruzko espezialitateak.

Toki-erakundeak pertsona fisikoen eskuz idatzitako sinadurari eta sinadura biometrikoari buruzko mekanismoak ezarri ahal izango ditu aurrez aurreko harremanetan erabiltzeko. Nolanahi ere, mekanismoek bermatuko dituzte, batetik, sinaduraren ordezkaritza-datuen konfidentziasuna eta, bestetik, toki-erakundeak edo hirugarrenek horiek ez berrerabiltzea eta sinatutako datuen osotasuna nahiz aldaezintasuna.

19. artikulua. Toki-erakundearen identifikazioa eta sinadura elektronikoa automatizatua.

1. *Toki-erakunde honek identifikatzeko eta elektronikoki modu automatizatuan sinatzeko aukera izango du. Xede horrez, zigilu elektronikoa aurreratuko sistemak erabiliko ditu, eta ziurtagiri elektronikoa kualifikatua oinarrituko dira, jarduketarako eskatzen den segurtasun-mailaren arabera. Aplikazioko legediak eta, bereziki, administrazio elektronikoen eremuan Segurtasunaren Eskema Nazionala arautzen duen legediak ezarriko dituzte baldintzak.*



2. Toki-erakundeak zigilu elektronikoaren ziurtagiri kualifikatu bat izan beharko du bere jarduketa automatizatuak sinatzeko, batez ere, egoitza elektronikoak berehala erantzuteko zerbitzuei begira.

20. artikulua. Egiatzapen-kode segurua.

Egoitza elektronikoan agiri elektroniko sinatuak egiaztatzeko, toki-erakundeak egiaztapen-kode seguruko sistema erabiliko du dokumentu elektronikoei dagokienez paper euskarriko kopien egiazkotasuna bermatzeko. Nolanahi ere, egiaztapen-kode seguruak berme tekniko nahikoak emango ditu jarduketarako eskatzen den segurtasun-mailaren arabera. Aplikazioko legediak eta, bereziki, administrazio elektronikoaren eremuan Segurtasunaren Eskema Nazionala arautzen duen legediak ezarriko dituzte baldintzak.

V. kapitulua. Erregistro elektronikoa.

21. artikulua. Erregistro elektronikoa orokorra.

1. Ordenantza honen bidez erregistro elektronikoa arautzen da, eta toki-erakunde honen erregistro orokorrean txertatuko da ondore juridiko guztietarako.
2. Erregistro elektronikoa urteko egun orotan eguneko 24 ordutan sartu ahalko da, eta ezinbestez aurretik identifikatu beharko da toki-erakundeak onetsitako edozein baliabideren bidez.
Sarrerako eta irteerako eguna eta ordua elektronikoki izendatzeko zerbitzuaren bidez ziurtatuko da.
3. Alkatetza da erregistro elektronikoa orokorra kudeatzeko organo edo unitate arduraduna.
4. Udalari lotutako edo haren mendeko organoen erregistro elektronikoak elkar konektatuta egongo dira, eta erregistro elektronikoa orokorrarekin elkarrengarriak izango dira. Gainera, Elkarrengarritasunaren Eskema Nazionala beteko dute.
5. Bai erregistro elektronikoa orokorra, bai organo bakoitzaren erregistro elektronikoek datu pertsonalak babestearen arloan legediak aurreikusten dituen segurtasun bermeak eta neurriak aintzat hartuko dituzte, eta, ondorioz, Segurtasunaren Eskema Nazionala beteko dute.

22. artikulua. Erregistro elektronikoa orokorraren funtzionamendua.

1. Erregistro elektronikoa orokorrean toki-erakunde honetan aurkezten edo jasotzen den agiri ororen idazpena egingo da. Gauza bera egingo da Udalak berak gauzatzen dituenekin, araudiak erregistratzeko eskatuz gero.
2. Erregistroak adieraziko ditu egun eta ordu ofiziala, hain zuzen ere, egoitza elektronikoan azaltzen den bera, eta toki-erakunderako egun baliogabeen zerrenda.
3. Erregistroan urteko egun orotan hogeita lau ordutan agiriak aurkeztu ahalko dira.



4. *Erregistrora sartzen uzten duen egoitza elektronikoan erregistro elektroniko orokorraren bidez hasi daitezkeen izapideen zerrenda eguneratua agertuko da.*
5. *Idazpenak idazteko orduan, agirien harrera edo irteeraren denbora hurrenkera errespetatuko da, eta eguna azalduko da. Erregistroko izapideak amaitutakoan, jaso diren erregistrotik agiriak atzerapenik gabe dagozkien hartzaileei eta administrazio-unitateei helaraziko zaizkie.*
6. *Erregistro elektroniko orokorrak bermatuko du idazpen bakoitzean idatziz jasota gelditzen direla honako hauek gutxienez:*
 - a) *Idazpenaren adiera bakarreko zenbakia edo identifikatzailea.*
 - b) *Idazpenaren izaera.*
 - c) *Aurkezpenaren edo irteeraren eguna eta ordua.*
 - d) *Interesdunen identifikazioa.*
 - e) *Administrazio-organo bidaltzailea, hala badagokio.*
 - f) *Pertsona edo administrazio-organo hartzailea.*
 - g) *Eta, bidezkoa bada, erregistratzen den agiriaren edukiari buruzko aipamena.*

Horretarako, automatikoki hartu-agiri bat egingo da. Agiri elektronikoaren kopia legeztatua izango da, honako eduki hauek barne dituela:

- a) *Erregistro elektronikoan egindako idazpenaren bidez aurkeztu den idazkiaren, jakinarazpenaren edo eskaeraren edukia. Xede horrez, onargarria da aurkezpen inprimakian sartu diren datuak hitzez hitz errepikatzea.*
 - b) *Aurkezpenaren eguna eta ordua, toki-erakundeak bete behar dituen epeak zenbatzen hasteko.*
 - c) *Erregistro elektronikoan idazpenaren zenbakia edo identifikatzailea.*
 - d) *Agiriarekin batera erantsita aurkeztu diren agirien zerrenda eta izena, eta bakoitzaren hatz-marka elektronikoa. Azkenekoa hartu-agiria izango da haiek egiaztatzeko. Helburua da osotasuna eta uko egiten ez zaiela bermatzea.*
7. *Erregistro elektronikoa erabat elkarreragingarria izango da. Hala, bateragarritasun informatikoa eta interkonexioa bermatuko dira, bai eta erregistro-idazpenak eta edozein erregistrotan aurkezten diren agiriak telematikoki transmititzen direla ere, Elkarreragingarritasunaren Eskema Nazionalak eta aplikazioko gainerako araudiak zehaztutakoaren arabera.*
 8. *Herritarren arretarako bulegoak (HAZ) toki-erakundearen aurrez aurre aurkezten diren papereko agiriak digitalizatuko ditu, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.5 eta 27. artikuluek eta aplikatu behar den gainerako araudiak aurrez ikusitakoarekin bat etorriz, administrazio-espeditante elektronikoan sartzeko. Originalak interesdunari itzuliko zaizkio, honako ustezkoetan izan ezik: arauak administrazioak aurkeztutako agiriak zaindu behar dituela zehaztea edo nahitaez digitalizatu ezin daitezkeen berezko euskarrian objektuak edo agiriak aurkeztu behar izatea.*



Ordenantza honen bidez toki-erakundeak ezartzen du zenbait agiri ezinbestez baliabide elektronikoak erabiliz aurkeztu behar direla unean-unean egoitza elektronikoan azaltzen diren izapideen, prozeduren edo pertsona fisikoen taldeen kasuan, gaitasun ekonomikoa, teknikoa, lanbide-arduraldia edo bestelako arrazoiak direla eta, ziurtatuta badago beharrezko baliabide elektronikoak irisgarri eta eskuragarri dituztela.

23. artikulua. Idazkiak, eskaerak eta jakinarazpenak ezestea.

1. Erregistro elektronikoek aurkezten zaizkien agiri elektronikoak ezetsi ahalko dituzte honako inguruabar hauetan:

- a) Erregistroaren arloko eremutik kanpo dauden organoentzako edo organismoentzako agiri ez-normalizatuak direnean.*
- b) Agiriak normalizatuak izanik, eskatzen diren eremuak betetzen ez direnean edo tratatzea saihesten duten inkongruentziak edo ez-egiteak dituztenean. Halakoetan, interesdunari jakinaraziko zaio, ahal denean, gabeziak zuzentzeko. Halaber, zuzentze aldera, mekanismoaren jakinaren gainean geldituko da.*
- c) Kode gaiztoa edo sistemaren osotasunean eragin dezakeen gailua duenean.*

Aurreko atalean aurreikusten diren kasuetan, agiriaren bidaltzaileari berri emango zaio, eta ezesteko zioak azalduko zaizkio. Horrez gain, ahal denean, gabeziak zuzentzeko baliabideak adieraziko zaizkio, aurkezteko helbidearekin batera.

Interesdunak eskatzen duenean, aurkezteko saiakeraren justifikazioa bidaliko zaio, eta ezesteko inguruabarrak izango ditu.

Agiri elektronikoak ezestea eragingo duten inguruabarrak bildu arren, erregistro elektronikoak automatikoki ezetsi ez duenean, administrazio-organo eskudunak zuzentzeko errekerimendua egingo du, eta ohartaraziko du errekerimenduari erantzuten ez bazaio, aurkezpenak ez duela baliozkotasunik eta eraginkortasunik.

24. artikulua. Erregistro orokorrean epeak zenbatzea.

- 1. Toki-erakunde honek erregistro elektronikora sartzeko egoitza elektronikoan egun baliogabeen egutegia argitaratuko du, eta egutegi hori baino ez da aplikatuko erregistro elektronikoetan epeak zenbatzeko. Era berean, herritarren arretarako bulegoak (HAZ) zer egunetan eta orduetan egongo diren irekiak argitaratuko du. Modu horretan, baliabide elektronikoak erabiltzean lagunduak izateko interesdunen eskubidea bermatuko du.*
- 2. Erregistro elektronikoa egun eta ordu ofizialez baliatuko da edo, bidezkoa bada, sartzeko egoitza elektronikoan zehazten dena kontuan hartuko du. Dena delakoa, osotasuna bermatzeko eta irisgarri eta ikusgai izateko segurtasun neurriak izan beharko ditu.*
- 3. Erregistroari begira epeak zenbatzeko, agiriak egun baliogabe batean hartzen badira, hurrengo egun balioduneko lehenengo ordu baliodunean egintzat joko da, arau batek berariaz egun baliogabean hartzen uzten duenean izan ezik. Agiriak egun baliogabean aurkeztu ziren benetako ordu-ordenaren arabera aurkeztutzat joko dira. Egun baliogabean aurkeztutako agiriak, hurrenkera berean, hurrengo egun baliodunekoak baino lehenagokoak direla joko da.*
- 4. Epeak erregistro elektronikoan aurkezten diren egunean eta orduan hasiko dira zenbatzen.*



5. *Ustekabeko gorabehera teknikoak edo mantentze-lan teknikorako planifikatu den jarduketa dela bide, erregistro elektronikoari dagokion sistemak edo aplikazioak ohiz funtzionatu ez duenean, toki-erakunde honek erabaki dezake amaitu gabe dauden epeak luzatzea. Halakoetan, egoitza elektronikoan argitaratu beharko ditu gorabehera teknikoak edo planifikatuta eskuragarri egongo ez dela adierazten duen aurretiazko oharra, eta amaitu gabeko epea noiz arte luzatuko den. Erregistroak automatikoki aurkeztu ez diren agiri elektronikoak hartu izanaren frogagiria emango du, eta idatziz jasota geldituko da sarrera-idazpena. Gainera, kopia legeztatua egingo da, eta erregistroan izandako sarreraren eguna, ordua eta zenbakia ageriko dira. Agiri bakarra izan daiteke, harrera frogagiriarekin batera.*
6. *Ez dira inolaz ere erregistro elektronikotzat joko langile publikoei edo administrazio publikoa osatzen duten unitateei esleitutako korporazioko posta elektronikoaren postontziak edo fax gailuak.*

25. artikulua. Administrazio-prozedurako interesdunek aurkeztutako agiriak.

1. *Interesdunek administrazio-prozeduran eskatzen diren datuak eta agiriak aurkeztuko dituzte, bai hasieran, bai eta izapidetzen ari den bitartean ere, komenigarritzat jotzen dituzten bestelako agiriarekin batera. Interesdunen erantzukizuna da aurkezten dituzten agiriak egiazkoak izatea.*
2. *Toki-erakunde honen egoitza elektronikoak izapide bakoitzaren kasuan interesdunek erregistro elektronikoan eskaera aurkeztean erantsi behar dituzten datuen eta agirien zerrenda sinplifikatu eta eguneratua izango du.*
3. *Udalak bere korporazioko sareen bitartez edo datuen bitartekaritza-plataformetan ala administrazio publikoek gaitu dituzten beste sistema elektroniko batzuetan kontsultatuz administrazio-prozedura hasi eta izapidetzeko behar dituen agiriak eta datuak jasoko ditu. Interesdunek kontsulta baimentzen dutela ulertuko da, prozeduran aurka egiten dutela berariaz idatziz jaso uzten ez badute edo aplikazioko lege bereziak berezko baimena eskatzen ez badu. Bi kasuetan, aurretiaz datu pertsonalak babesteko eskubideen berri emango zaie.*
4. *Salbuespenez, udalak ezin baditu agiriak jaso, berriz eskatu ahal izango dio interesdunari aurkezteko.*
5. *Salbuespenez, udalak interesdunari jatorrizko agiria aurkezteko eskatzen dionean edo jatorrizko agiria paper formatuan dagoenean, interesdunak elektronikoki aurkeztu baino lehen kopia kautotua eskuratu beharko du. Kopia elektronikoak berariaz adieraziko du inguruabar hori. Kopia kautotuak herritarren arreta bulegoetan xede horrez gaituta dauden funtzionarioen bitartez lortu ahalko dira. Erregistro gaietan laguntzeko bulego gisa jardungo dute. Bestela, administrazio-jarduketa automatizatuaren prozesu onetsiak erabiliko dira, toki-erakundeak eskura jarri ostean.*
6. *Salbuespenez, prozeduran agiriaren garrantziak hala eskatzen duenean edo kopiaren kalitatearen ondorioz zalantzak daudenean, toki-erakunde honek arrazoituta eskatu ahal izango du interesdunak aurkeztutako kopiak erkatzea, agiri edo informazio originala erakusteko errekerimendua eginaz.*



VI. kapitulua. Jakinarazpena administrazio-prozedura elektronikoa.

26. artikulua. Jakinarazpena egin eta helaraztea.

- 1. Baliozkoa da toki-erakundearen egoitza elektronikoa edo gaituta dagoen helbide elektronikoa bakarrean (GHEb) agertuta jakinaraztea.*
- 2. Herritarren karpeta bidez agertuz gero, egoitza elektronikoa agerraldia izango da jakinarazpenaren edukia eskuratu edo ezesteko, eta idatziz jasota utziko da inguruabar bat edo bestea.*
- 3. Agerraldi elektronikoa jakinarazpena helaraztea ahalbidetzeko, sistemak honako eskakizun hauek beteko ditu:*
 - a) Jakinarazpenean sartzen den pertsonaren identifikazioa ziurtatuko da toki-erakundeak ordenantza honetan aurreikusitako baldintzetan xedatzen duenaren arabera.*
 - b) Argi eta garbi identifikatzeko moduan azaldu beharko da interesduna edukira sartzean jakinarazten ari zaiola lege-ondore egokiak izan ditzan.*
 - c) Interesduna edo ordezkaria jakinarazpenaren edukian sartu dela idatziz jasota utziko da, eta eguna nahiz ordua adieraziko dira.*
- 4. Gainera, borondatez interesdunak edo bere ordezkariak hala eskatu duenean, ala legez edo arauz jakinarazpenak baliabide elektronikoa erabiliz jaso behar dituztenean, toki-erakundeak gaitutako helbide elektronikoa bakarrean (GHEb) interesdunaren edo bere ordezkariaren esku jarri ahal izango du jakinarazpena araudi arauemailean aurreikusita dauden baldintzetan.*
- 5. Paperean jakinarazten denean, egoitza elektronikoa eskura jarritako jakinarazpenaren kopia kautotua sortuko da automatikoki, eta horretarako toki-erakundeak egiaztapen-kode segurura joko da.*

Agerraldi pertsonalaren bidez langile publikoak paperean entregatutako jakinarazpena edo gutun ziurtatuaren bitartez iritsitakoa abiapuntutzat hartuta, interesdunak edo bere ordezkariak jakinarazpena hartu duela idatziz jasota utzi beharko da, bai eta euskarri elektronikoa ere, eta kopia elektronikoa kautotuaren moduan espedienteetan sartzeko digitalizatuko da.

Paperean egindako jakinarazpen guztiak interesdunaren esku jarri beharko dira toki-erakundearen egoitza elektronikoa borondatez edukia ezagutzeko.

VII. kapitulua. Agiriak kudeatzea.

27. artikulua. Kopia elektronikoa eta kopia elektronikoa kautotua.

- 1. **Kopia elektronikoa:** Udaleko Idazkaritza Orokorraren titularrak edo eginkizun hori eskuordetuz gaitu den funtzionarioak kopia elektronikoa egin ditzake, eta espedienteetan interesa duten pertsona fisikoek edo juridikoek egindako administrazio agiri elektronikoa publikoen edo pribatuen kopia kautotutzat joko dira, baldin eta edukia zehatza dela ziurtatzen bada, nahiz eta agiriaren egitura formatu desberdinetara egokitu. Kopiek agiri originalaren kautotasun eta osotasun elementuak egiaztatzeari buruzko adierazpena izango dute. Kautotasuna eta osotasuna onetsita dagoen sinadura elektronikoa bidez bermatuko dira.*



- Papereko euskarriko agirien kopia elektronikoko kautotua:** aurreko atalean zehaztutako baldintza berdinekin jatorrian paper euskarrian egindako agirien kopia elektronikoko kautotua egin ahalko dituzte.

Paper euskarriko agirien kopia elektronikoko kautotua Elkarreragingarritasunari buruzko Araudi Teknikoak xedatutako prozeduraren bidez egingo da. Hori digitalizazio-prozedura segurua da, eta barne du gaituta dagoen pertsonaren sinadura elektronikoko onetsia edo kualifikatua. Hala, sinadura elektronikokoaren bitartez kopiaren kautotasuna eta osotasuna bermatuko dira, kopia egiten duenaren identitateaz gain.

28. artikulua. Akten liburua eta ebazpenen liburua.

- Akten liburua.** Kide anitzeko organoak onetsi ostean, bilkuretako aktak agiri elektronikoko gisa definituta idatziko dira, Elkarreragingarritasunaren Eskema Nazionalari buruzko arauen arabera, eta toki-erakundeko Udalburutzak nahiz Idazkaritzak sinatuko dituzte.

Urtero, Idazkaritzaren eginbidearen bidez, akten erregistro elektronikokoaren liburua irekiko da, onetsi ondoren, onespren hurrenkerari jarraikiz, Idazkaritzaren Zerbitzuak urte naturalean egin diren bilkuretako akte dagozkien agiri elektronikokoak sartzeko. Azken akta sartzean, Idazkaritzaren titularrak agiri elektronikokoan eginbide bat gauzatuko du idatziz jasota gelditzeko urteko akten kopuru guztia, bilkuraren eguna eta onespren eguna.

Eginbide hori sartzen denean, erregistro elektronikokoaren liburua itxiko da, eta automatikoki aurkibide bat erantsiko zaio, bertan dauden agiri guztiak (aktak eta eginbideak) ezagutzeko. Segurtasunari, zaintzari eta elkarreragingarritasunari begira, akten erregistro elektronikokoaren liburua Segurtasunaren eta Elkarreragingarritasunaren Eskema Nazionalak espediente elektronikoei eskatzen dieten tratamendu bera izango du.

- Ebazpenen liburua.** Administrazio ebazpenak kudeatzeko sistema elektronikokoaren bitartez izapidetzen diren ebazpenak, pertsona bakarreko organoak eman ostean, fede-emaile jarduleak ebazpenen erregistro elektronikokoaren liburuan sartuko ditu. Liburua jarduketa automatizatuaren bidez zehazten den aldizkakotasunez egingo da. Liburua berez agiri elektronikoa izango da, eta idatziz jasota agertuko dira ireki eta ixteko eginbideak. Segurtasunari, zaintzari eta elkarreragingarritasunari begira, Segurtasunaren eta Elkarreragingarritasunaren Eskema Nazionalak espediente elektronikoei eskatzen dieten tratamendu bera izango du.

29. artikulua. Artxibo elektronikoa.

Artxiboaren ardura da toki-erakundeak egindako jardueren eta eginkizunen lekukotza agiriak biltzea, gordetzea, sailkatzea, antolatzea eta, bidezkoa bada, hedatzea, baldin eta administrazioaren eta herritarren eskubideak eta betebeharrak ziurtatzeko badira edo ziurtatu baditzakete, euskarria gorabehera.

Toki-erakunde honek baliabide elektronikoen bidez euskarri elektronikokoan ekoitzi eta jasotako agiri guztiak artxibatu beharko ditu, eta gauza bera egingo du bere eskumenak eta administrazio-jarduketak baliatuz eraldatu direnekin. Betiere gorde diren agiri elektronikoko horien kautotasuna, fidagarritasuna, osotasuna eta eskuragarritasuna bermatuko dira honako hauek kontuan hartuta: helburu horrekin onetsi diren estandarrak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 17. artikuluan xedatutakoa eta aplikaziokoa den artxiboari buruzko legedia.



Babesteko, agiri elektronikoen artxiboa administrazio-unitateetatik artxibo elektronikora agiriak transferitzeko oro har zehaztuta dauden prozedurekin bat etorritz egingo da, izaera elektronikoa erreparatuz definitu daitezkeen zehaztapenen kalterik gabe, erabili den berezko euskarria alde batera utzita.

Espedienteen bizi-zikloa: *espediente elektronikoen bizi-zikloa indarreko estatu- eta autonomia-mailako araudiaren arabera izango da.. Toki-erakunde honek dokumentu eta espediente elektronikoa balioetsi, hautatu eta behin betiko ezabatu edo gordetzeko prozesuen arabera doituko ditu gordetzeko epeak.*

Beste erakunde batzuekin agiriak Administrazio Elektronikoen esparruan Eraginkortasunaren Eskema Nazionala arautzeko urtarrilaren 8ko 4/2010 Errege Dekretuak xedatutako eskakizunen eta baldintzen arabera trukatu dira.

Toki-erakunde honek beste erakunde bati agindu diezaioke administrazio kudeaketa orokorrean sartuta agiriak kudeatzea. Kudeaketa honek barne izango du agiriaren kudeaketa elektronikorako eta artxibo elektronikorako protokoloa. Helburua da prozedura hasten denetik administrazio agiriaren sailkapen funtzionalaren, segurtasunaren eta kokapenaren gainean baldintza teknikoak eta antolakuntzari buruzkoak arautzea, kontserbatu eta eraldatzeko organo eskudunak definitzeaz gain. Protokoloa eskuragarri egongo da egoitza elektronikoa.

Amaitutako prozeduren dokumentu elektronikoa beren egiazkotasuna, osotasuna eta kontserbazioa bermatzea ahalbidetzen duten formatuetan gorde behar dira, eta kontsultatzeko modukoak izango dira, bidali zirenetik igaro den denbora dena dela.

Horretarako, jatorrizko formatua gordetzeko formatu batera aldatu daiteke, kopia elektronikoa kautotuen bidez. Datuak aplikazio ezberdinetatik sartzea eta horien legezatasuna bermatzen duten beste formatu eta euskarrietan jasoko dira.

VIII. kapitulua. Bide elektronikoa erabiliz izapideak eta prozedurak eranstea.

30. artikulua. Izapide elektronikoa erantsitako prozedurak.

- 1. Toki-erakundeak pixkana udaleko administrazio-izapideak eta -prozedurak erantsiko dizkio bide elektronikoa erabiliz egindako izapideei, ordenantza honek xedatutakoaren arabera.*
- 2. Izapideak eta prozedurak eransten direnean, egoitza elektronikoa argitaratuko da.*

31. artikulua. Administrazio-jarduketa automatizatuak.

- 1. Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 41. eta 42. artikuluek xedatutakoaren babesean, Alkatetzaren dekretuaren bidez administrazio-prozedura baten esparruan edozein egintza edo jarduketa administrazio-jarduketa automatizatu gisa zehaztu ahal izango da, langile publikoak zuzenean esku hartu gabe. Alkatetzaren dekretu hori Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratu behar da. Halako prozedurak sortzea onesten duen ebazpenak definituko du aurkaratzeko zein izango den organo arduraduna.*
- 2. Administrazio-jarduketa automatizatuaren eskumena baliatzeko orduan administrazio publikoaren zigilu elektronikoa eta egiaztatze-kode seguruan oinarritutako sinadura elektronikoen sistemak erabiliko dira:*



- a) *Administrazio publiko, organo, organismo publiko edo zuzenbide publikoko erakundearen zigilu elektronikoa ziurtagiri elektroniko onetsian edo kualifikatua funtsatzen da, baldin eta sinadura elektronikoaren legediak eskatzen dituen betekizunak baditu.*
- b) *Administrazio publiko, organo, organismo publiko edo zuzenbide publikoko erakundearekin lotutako egiaztatze-kode segurua, ezartzen diren eskakizun eta baldintzetan; nolahi ere, egoitza elektronikoan sartuz agiriaren osotasuna egiaztatzen ahal da.*

Xedapen gehigarriak.

Lehenengo xedapen gehigarria.

Udalaren administrazio-jardueraren kudeaketa elektronikorako euskarri gisa erabiliko diren sistema informatikoak lehenetsunez beste administrazio publiko batzuek ematen dituzten konponbide eskuragarriak izango dira. Berrerabili egingo dira estali nahi diren beharrak, hobekuntzak edo eguneratzeak erabat edo zati batean asetzen badituzte eta betiere elkarreragingarritasunaren eta segurtasunaren eskakizun teknologikoek ahalbidetzen badute, hori guztia Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 157. artikulua xedatutakoaren arabera.

Bigarren xedapen gehigarria.

Udalbatzako kideek beren eginkizunak betetze aldera toki-erakundearen zerbitzuek beren esku dituzten aurrekarietan, datuetan edo informazioetan sartzeko eskatzen badute, arloko berariazko araudiak xedatutakoarekin bat etorritik izapidetuko dira.

Hirugarren xedapen gehigarria.

Herritarrek toki-erakundearen zerbitzuek beren eskura duten informazio publikoa lortu nahi badute, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legeak eta eskualdeko garapen-legediak aurrez ikusitako prozedura izapidetuko da.

Laugarren xedapen gehigarria.

Toki-erakunde honek unean-unean administrazio elektronikoaren arloan Arabako Foru Aldundiak ematen dizkion baliabideak erabili ahal izango ditu. Bitarteko horien artean egongo dira, besteak beste, datuak gordetzea, tresna informatikoak erabiltzea eta SARA sarean sartzeari.

Azken xedapenak.

Azken xedapenetatik lehenengoa.

Ordenantza hau oso-osorik Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hamabost egun baliadunen buruan jarriko da indarrean, baina lehenago Toki Erakundeko Osoko Bilkurak onetsi beharko du, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 eta 65.2 artikuluek xedatutakoaren arabera, eta indarrean jarraituko du aldatu arte edo berariaz indargabetu arte.



Azken xedapenetatik bigarrena.

Alkatetzari ahalmena ematen zaio antolakuntzako neurri egokiak har ditzan, ordenantza honen aurreikuspenak garatzeko. Halaber, normalizazioaren, elkarreragingarritasunaren edo, orokorrean, garapen teknologikora egokitzeko zioak direla bide, komenigarritzat jotzen dituen alderdi teknikoak aldatzeko gaitasuna izango du. Horiek guztiak behar bezala argitaratuko dira Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean. Ordenantza honek aurreikusten ez duenerako toki-erakundeetan halako aprobetxamendu-motak arautzen dituzten xedapen orokorrei erreparatuko zaie.

Arespalditzan. - ALKATEA. - Stua.: - Prudencio Otegui Echevarría

ELEKTRONIKOKI SINATUTAKO DOKUMENTUA

BIGARRENA. - Jendaurrean aurkezteko 30 egun balioduneko epea irekitzea, erabaki hau Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean (ALHAO) argitaratzen denetik zenbatzen hasita. Epe horretan, interesdunek beharrezkotzat jotzen dituzten alegazioak aurkeztu ahalko dituzte, eta, halakorik egotekotan, Udalbatzak aztertuko ditu, erabakia behin betiko onesteko. Hasierako onespenerari alegaziorik aurkeztan ez bazaio, hasiera baterako onetsitako erabakia behin betikotzat joko da, eta testu osoa ALHAOn argitaratuko da.

HIRUGARRENA. - Erabaki hau ALHAOn argitara dadila agintzea.

4.- 2024ko martxoaren 8ko adierazpen instituzionala.

Irantzu Apodaka Sanchez zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) hartu du hitza mozioa azaltzeko.

Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) hartu du hitza eta adierazi du ados daudela adierazpenarekin, baina uste dutela isla handiagoa izan beharko lukeela udal-politikan; izan ere, adierazpena onetsi ostean, jarduketak egin behar dira.

Ez da horri buruzko iruzkin gehiagorik egin eta gaia bozkatu da, zinegotziek aho batez onetsi dute. Hori dela bide,

IKUSI DA. - Martxoaren 8a, Emakumearen Nazioarteko Eguna dela eta, egindako adierazpen instituzionala.

Udalbatzak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

LEHENENGOA. - LEHENENGOA.- Onestea, martxoaren 8a, Emakumearen Nazioarteko Eguna dela eta, egindako adierazpen instituzionala; honela dio, hitzez hitz:



**ADIERAZPEN INSTITUZONALA,
MARTXOAREN 8A DELA ETA,
EMAKUMEEEN NAZIOARTEKO
EGUNA**

AIARAKO UDALA

Emakumeen nazioarteko egun honetan, bidezkoa da gure gizarteak historian zehar eraldaketa feministak eragin dituzten emakumeen belaunaldiekiko zorra aitortzea, genealogia feminista indartzea, bai genero-agindu eta genero-estereotipoen aurkako erresistentzietan, bai mugimendu feministaren borroka kolektiboetan.

Sistema patriarkalak emakumeen ideiak ikusezin bihurtu ditu eta haien aktibismo politiko eta soziala ukatu ditu, beraien aldarrikapenak isilaraziz eta komunitateen aldeko lorpenen ebidentziak ezabatuz. Gainera, sistematikoki ezkutatu dira jatorri eta tradizio kultural desberdinetako emakumeen, emakume arrazializatuen, lesbianen, dibertsitate funtzionala duten emakumeen eta adineko emakumeen ekarpenak.

Zehazki, arreta jartzen dugu adineko emakumeen egungo belaunaldian, sistematikoki estereotipatua eta diskriminatua den belaunaldi horretan, sozialki garrantzirik gabekoa bihurtu duten horretan. Gainera, ikusezintasun hori ahulezia handiagoko egoerak ezkutatzen ari da, hala nola prekariedade eta pobretzea, nahi ez den bakardadea, osasun-arazoak eta indarkeria matxista motak.

Emakumeen ahalduntze-prozesuak tradizio teoriko, politiko eta filosofiko feminista baten oinordekotzat hartzea eskatzen du. Horregatik, adineko emakumeek dituzten jakinduriak eta errealitatearen ikuspegi kritikoa balioestea lagungarria da memoria historikoa erreparatzeko. Konponketa horrek aukera ematen digu gure aurreko emakumeak ezagutzeko eta iragana, oraina eta etorkizuna lotuko dituen belaunaldien arteko transmisioa bermatzeko.

**DECLARACIÓN INSTITUCIONAL CON
MOTIVO DEL 8 DE MARZO, DÍA
INTERNACIONAL DE LAS MUJERES.**

AYUNTAMIENTO DE AYALA

En este día internacional de las mujeres, es de justicia que nuestra sociedad reconozca la deuda con las generaciones de mujeres y fortalezca la genealogía feminista que han contribuido a las transformaciones feministas a lo largo de la historia, tanto desde sus resistencias contra los mandatos y estereotipos de género, como desde las luchas colectivas del movimiento feminista.

El sistema patriarcal ha invisibilizado las ideas y negado el activismo político y social de las mujeres, silenciando sus reivindicaciones y borrando las evidencias de sus logros en favor de sus comunidades. Además, se han ocultado sistemáticamente las aportaciones de las mujeres de distintos orígenes y tradiciones culturales, racializadas, lesbianas, con diversidad funcional y de las mujeres mayores.

En concreto, ponemos el foco en la generación actual de mujeres mayores, la cual es sistemáticamente estereotipada y discriminada, convirtiéndola en socialmente irrelevante. Además, esta invisibilidad está ocultando situaciones de mayor vulnerabilidad como la precariedad y empobrecimiento, la soledad no deseada, problemas de salud y formas de violencia machista.

El proceso de empoderamiento de las mujeres requiere reconocerse como herederas de una tradición teórica, política y filosófica feminista. Por ello, poner en valor los saberes y la visión crítica de la realidad que tienen las mujeres mayores, contribuye al ejercicio de reparación de la memoria histórica. Dicha reparación nos permite reconocer a nuestras predecesoras y garantizar la transmisión intergeneracional que conecte pasado, presente y futuro.



Martxoaren 8an, emakumeen nazioarteko eguna dela eta, erakunde ezberdinek eskura ditugun estrategia eta mekanismo guztiak sustatu behar ditugu, genealogia feminista ikusarazteko eta emakumeekin historian izandako ahanzturak konpontzeko.

Udalok, herritarrengandik hurbilen dauden erakundeak garenez, aukera eta ardura dugu, toki-eremuan, emakumeen belaunaldien historia berreskuratzeke eta emakumeek eta borroka feministek udalerrien bizitzari eman dioten balioa aitortzeko, adineko emakumeen egungo belaunalditik hasita. Beraz, Aiarako Udalak konpromiso hauek hartzen ditu:

- Emakumeen memoria **historikoa aitortu eta berreskuratuko** duten proiektuak garatzea, genealogia sortzeko, hurbileko erreferenteetatik hasi eta tokiko bizitzan eragina izan duten talde feministetarako.
- Emakume nagusiek egindako ekarpenak eta emandako laguntza bistaratzeko, emakume gazteagoen ahalduntzea posible egin dutelako.
- Bidea egitea: borroka feminista aztertzea, nola joan den hainbat eremu bereganatzen: familia eremua, lanekoa eta hezkuntza guneak.
- Emakume banakoen eta taldeen erresistentziak eta errebeldiak eragindako ekarpenak ezagutzeko eta zabaltzeko.
- Une historiko bakoitzean, tradizio eta ingurune kultural guztietan, sistemarekiko erresistentzia eta erantzuna artikulatu duten **mugimendu feministak aintzatesten** laguntzea, genealogia feminista landuz.
- Desarrollar proyectos que **reconozcan y rescaten la memoria** histórica local de las mujeres para crear genealogía, desde las referentes próximas, hasta los grupos feministas.
- Visibilizar y reconocer la aportación y soporte que han dado y dan las mujeres mayores al avance hacia el empoderamiento de las mujeres más jóvenes.
- Hacer camino: analizar la lucha feminista, cómo se han ido conquistando espacios- desde el espacio familiar, desde los espacios laborales, y desde los espacios escolares.
- Conocer la contribución de las resistencias y rebeldías de mujeres particulares y la resistencia organizada y articulada en grupos de mujeres.
- Contribuir al **reconocimiento de los movimientos feministas** que han articulado la resistencia y respuesta al sistema en cada momento histórico, en las distintas tradiciones y entornos culturales, fomentando la genealogía feminista.

Este 8 de marzo, con motivo del día internacional de las mujeres, desde las diferentes instituciones debemos promover todas las estrategias y mecanismos a nuestro alcance para visibilizar la genealogía feminista y reparar los olvidos de la historia con las mujeres.

Los Ayuntamientos, como instituciones más cercanas a la ciudadanía, tenemos la oportunidad y responsabilidad de rescatar, en el ámbito local, la historia de generaciones de mujeres y de reconocer el valor que las mujeres y las luchas feministas han aportado a la vida de los municipios, empezando por la generación actual de mujeres mayores. Por tanto, el Ayuntamiento de Ayala se compromete a:



- Ezagutzak eta esperientziak **trukatzeko belaunaldien arteko topaketa- eta elkarrizketa-guneak** babestea, ahalduntze feministarako eta adin eta baldintza desberdinetako emakumeen aliantzarako guneak izan daitezen.
- **Emakumeen ikusgarritasun soziala** sustatzea ikuspegi interseksionalaz, **bereziki, adineko emakumeena**, bere aniztasun osoan, eta emakumeen zahartzaroari buruz, gizartean, nagusi den irudia eraldatuz, adinean eta estereotipoetan oinarrituta.
- Adineko emakumeek esparru publikoan dituzten esperientzietan eta **harreman-eta partaidetza-moduetan** arreta berezia jarriko duten proiektuak bultzatzea, haien aniztasun osoan.
- Errenta baxuenak dituzten **adineko emakumeei**, bereziki alargunei, **ahalduntze ekonomikoa** bermatuko dieten diru-sarreraren eta pentsioen eskaera babestea, eskumena duten erakundeen aurrean, eta konpentsazio-neurriak aztertu eta artikulatzea.
- Adineko emakumeentzat, bereziki alarguentzat, dauden **laguntza eta prestazio ekonomikoak** ezagutaraztea.
- Udal-eskumeneko **laguntza- eta zaintza-zerbitzu publikoak** indartzea beren herrietan, adineko emakumeei autonomia eta aktibismoa mantentzea ahalbidetzeko.
- Adineko emakumeen **aurkako indarkeria matxistaren eragina eta hura gauzatzeko moduak** ikertzea eta horietan sakontzea, emakume horien errealitatera eta beharretara egokitutako erantzunak artikulatzeko.
- Apoyar los espacios de **encuentro y diálogo intergeneracional** para intercambio de conocimientos y experiencias, como espacios de empoderamiento feminista y alianza de mujeres de diferentes edades y condiciones.
- Promover la **visibilidad social de las mujeres, especialmente de las mujeres mayores** en toda su diversidad, y combatir el edadismo, transformando la imagen que predomina en la sociedad sobre la vejez de las mujeres, basada en la edad y en los estereotipos con enfoque interseccional.
- Impulsar proyectos que pongan especial atención en las experiencias y en las formas de **relación y participación** de las mujeres mayores en el ámbito público, en toda su diversidad.
- Apoyar ante las instituciones competentes la demanda de ingresos y pensiones que garanticen el **empoderamiento económico a las mujeres mayores** de rentas más bajas, especialmente a las viudas, y que se estudien y articulen medidas de compensación.
- Dar a conocer las **ayudas y prestaciones económicas** existentes para las mujeres mayores, especialmente las viudas.
- Reforzar los **servicios públicos de apoyo y cuidados** de competencia municipal en sus localidades, que permitan a las mujeres mayores mantener su autonomía y activismo.
- Investigar, profundizar en el conocimiento de la **incidencia y las formas** en las que se ejerce la **violencia machista** contra las mujeres mayores, a fin de articular respuestas adecuadas a su realidad y necesidades.



- BERDINSAREA sarearen bidez, EUDEL en eta Emakunderen laguntzarekin, udalerriak **emakumeen tokiko memoria berreskuratzeko** abian jartzen ari diren ekimenak ezagutaraztea eta ikusaraztea.
- Herritarrak martxoaren 8aren inguruan antolatutako ekintzetan parte hartzera gonbidatzea, bai Aiaran, bai Aiaraldean.
- Difundir y dar visibilidad a través de la red BERDINSAREA, con la colaboración de EUDEL y Emakunde, a las iniciativas que los municipios están poniendo en marcha **para rescatar la memoria local de las mujeres.**
- Hacer un llamamiento a la ciudadanía para que participe en las actividades organizadas en el municipio y en Aiaraldea con motivo del 8 de marzo.

5.- Kredituen judizioz kanpoko aintzatespenaren 1/2024 espedientea onesteari buruzko Osoko Bilkurako erabaki-proposamena.

Jarraian, Udalbatzari jakinarazi zaio, Toki Erakundearen Antolaketa, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoari buruzko Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 82.3 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, alkateak edo udalburuak, behar bezala arrazoituta presazko arrazoiak direla medio, dagokion Informazio Batzordeak alde aurretik jakinarazi ez dituen gaiak sartu ahal izango dituela gai-zerrendan, baina kasu horretan ezin izango da gai horiei buruzko inolako erabakirik hartu Osoko Bilkurak gai-zerrendan sartzea berretsi ezean.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da. Ez da horri buruzko iruzkinik egin eta gaia bozkatu da; aho batez onetsi du puntu hau bilkura honetako gai-zerrendan sartzea.

Puntu honi buruzko erabaki-proposamenaren berri eman da.

Ez da horri buruzko iruzkinik egin eta gaia bozkatu da. Bertaratutako zinegotziek aho batez onetsi dute.

Hori dela bide, eta

IKUSI DA.- Kredituen judizioz kanpoko aintzatespenaren 1/24 espedientea.

IKUSI DA.- 2024ko apirilaren 16ko Idazkaritza eta Kontu-hartzaitzaren txostena.

AINTZAT HARTU DA.- Toki-ogasunak arautzen dituen Legearen Testu Bateginaren 176. artikulua eta Toki-ogasunak arautzen dituen 500/1990 Errege Dekretuaren 16. artikulua.



Udalbatzak, zinegotziek aho batez adostuz, ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- Kredituen judizioz kanpoko aintzatespenaren 1/2024 espedientea onestea, ondoren zerrendatutako datuen arabera, 2024 ekitaldi honen aurrekoan hartutako betebeharra izateagatik, ordaintzea baimentzeko, Udalaren aldetik aberaste bidegabea saihesteko.

- 104 zenbakidun faktura, 2023/12/27koa “Loiri Aisialdia eta Kirola SL” enpresarena, 3.191,49 eurokoa (BEZa kanpo). Zenbatekoa 2024 ekitaldirako luzatuta dagoen 2023rako aurrekontuaren 334.227042 partidaren kargura ordainduko da.

Jarraian, alkate jaunak Udalbatzari jakinarazi dio, presazko arrazoiak direla medio, Udalbatzaren Osoko Bilkurari proposamen bat aurkeztu zaiola kreditu gehigarria onesteko, zehazki, espero ezin diren zenbait gastuetarako aurrekontu luzatua espedientea, deialdiarekin batera aurkeztutako gai-zerrendan ez dagoena, Toki Erakundearen Antolaketa, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoari buruzko Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 91.4 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

Gaia Osoko Bilkura honetan eztabaidatu eta bozkatzeko premia aurrekontu horiek dakartzaten kontratazio eta ordainketak egin ahal izatea da, hurrengo Osoko Bilkuretara ez itzaroteko.

Prudencio Otegui Echevarría alkate jaunak (EH BILDU) gaia gai-zerrendan sartzeko premia justifikatu du, aurreko iruzkinetan emandako arrazoiengatik.

Udalbatzak, lehenik eta behin, gaia eztabaidatzea bidezkoa ote den erabaki du, eta aho batez erabaki du osoko bilkura honetan eztabaidatzea. Horrenbestez, honako puntu hau sartu da:

6.- Kreditu gehigarriaren 1/2024 espedientea onestea, bidezkoa bada.

Puntu honi buruzko erabaki-proposamenaren berri eman da.

Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) hartu du hitza adierazteko horri buruzko zalantzak dituztela, aldaketan 2023ko aurrekontuan jada agertzen zen partida dagoelako, eta, bere garaian esan zenaren arabera, EAJren aurrekontua zen, baina badirudi zenbait ekintzekin jarraitu nahi dela. Horretaz gain, ibilgailua erosteko partida ere agertzen da, eta hori ere bere garaian eztabaidatu zela. Hala ere, aurretik ezagutzen ez zituzten bi partidetarako bozkatu behar dute: ibilgailu elektrikoentzako zerbitzuguneak instalatzeko partida, zeinari buruz ez dakiten ezer, ez tokia, ez zein Administrazio-batzarrean eztabaidatu den, eta ez da batzordeetan jorratu; eta atoi-eszenatokia erosteko partida, eta horri buruz ere ez dakite ezer, ez da batzordeetan jorratu, ez dakite zein atoi-mota izango den. Hortaz, kexa adierazi nahi dute, horren inguruan dagoen informazio eskasa dela eta; hala ere, alde bozkatuko dute.



Aiarako Udala

Ayuntamiento de Ayala

Prudencio Otegui Echevarría jaunak (EH BILDU) erantzun dio atoiari buruz oraindik ez dela ezer adierazi ez dutelako informazio guztia, oraindik ez dute zehaztu, eta zerbait gehiago dakitenean horren berri emango dute.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) hartu du hitza eta euskaraz adierazi du oraindik ez dela zehaztu non jarriko duten; argiago dagoenean batzorde batean aurkeztuko dute.

Ez da horri buruzko iruzkin gehiagorik egin eta gaia bozkatu da, zinegotziek aho batez onetsi dute.

Hori dela bide, eta

IKUSI DA.- 2023ko aurrekontuaren likidazioak ekarri duen gastu orokorretarako Diruzaintzako gerakinaren zati bat erabili beharra, 2024rako gastuen aurrekontuan ez dauden partida berriak sortzeko, 2025era arte itxaron ezin duten gastuak ordaintzeko.

IKUSI DA.- Kontu-hartzaitzako organoak egindako txostena, aurrekontu-egonkortasuna ez betetzearen ondorioetarako, Arabako Toki Erakundeen Aurrekontuaren Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko abenduaren 13ko 38/2013 Foru Arauan (17/2014 Foru Arauak aldatzen du) jasotakoaren bat etorritz. Txostena Udalbatzari aurkeztuko zaio, kreditu-aldaketa honekin batera ezagut dezan.

AINTZAT HARTU DA.- Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauan eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean xedatutakoa.

Horregatik guztiagatik, Aiara-Ayalako Udaleko Udalbatzak aho batez honako hau **ERABAKI DU**:

Lehenengoa.- Ondoren zerrendatzen diren aurrekontu-aplikazioetan kreditu gehigarria onestea:

PARTIDA	IZENDAPENA	ZENBATEK OA/€
323.623.020	INSTALAZIO FOTOVOLTAIKOA ETXAURREN IKASTOLAN	76.100 €
425.623.020	IBILGAILU ELEKTRIKOENTZAKO ZERBITZUGUNEAK INSTALATZEA	30.000 €
920.624.000	ATOI-ESZENATOKIA EROSTEA	30.000 €
920.624.001	UDAL-IBILGAILUA EROSTEA	70.000 €

ZENBATEKOA GUZTIRA: 206.100 €.



Zenbateko hori jarraian zerrendatzen diren baliabideek finantzatuko dute, espedientea berdinduta eta defizitrik gabe aurkezteko moduan:

A. Handitu beharreko diru-sarrereren partidak edo erabili beharreko Diruzaintzako gerakina:

<u>Diru-sarrereren partida</u>	<u>Izendapena</u>	<u>Zenbatekoa/€</u>
87001	GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZAKO GERAKINA	206.100 €
	GUZTIRA	206.100 €

Onetsitako kreditu gehigarrien guztizkoa finantzatzeko erabiltzen diren diru-sarrereren guztizkoaren berdina da.

Bigarrena.- Erabaki hau ALHAOn argitaratzea eta espediente hau jendaurrean jartzea 15 egun baliioduneko epean, interesdunek aztertu eta egoki iritzitako erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Hirugarrena.- Erreklamaziorik ez badago, erabaki hau behin betikotzat hartzea. Erreklamaziorik egonez gero, beste erabaki bat hartu beharko da, eta onartu edo baztertu egin beharko dira.

7.- Alkatzaren dekretuen berri ematea.

Jarraian, Udalbatzari jakinarazi zaizkio 2024/11 eta 2024/80 bitarteko Alkatzaren Dekretuak, bi horiek barne. Horien edukia, laburki, honako hau da:

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2024/11.- EEPko langileen kontratazioko 2023ko abenduko ordainsariak eta aparteko ordainsaria ordaintzea, 2023/24.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2024/12.- Llantenoako administrazio-batzarra. - Llantenoako eskola zaharretan kirol-pistan saskien taulak ordeztzeko udaleko obra-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2024/13.-EDP Clientes SAU. Gas-horniduragatik tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu-tasa, 4/2023.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/14.- Totalenergias Electricidad y Gas SA.- Tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu-tasa, 4/2023.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/15.-Nortegas Endesa Energía SAU. Energia-horniduragatik tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu-tasa, 2023ko 4. hiruilekoa.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2024/16.- Nwd Suminsitro GLP SAU Energia-horniduragatik tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu-tasa, 4/2023.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/17.- Goiener S. Coop. Energia-horniduragatik tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu-tasa, 4/2023.



ALKATETZAREN DEKRETUA – 2024/18.-Orange Espagne SAU.- Tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu-tasa, 4/2023.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/19.- Acciona Green Energy Dev. SLU. Energia-horniduragatik tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu-tasa, 4/2023.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/20.- B.B.B. - Udaleko zerbitzu teknikoek ikuskapen-bisita egiteko finkarako sarbidea baimentzeko errekerimendua.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/21.- A.B.G. 2023ko TMIZ ordainagiriaren zati bat itzultzea, ibilgailuaren behin betiko bajagatik.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2024/22.- Soxoko administrazio-batzarra. - Dokumentazio gehigarria eskatzea, Soxoko bolatokia estaltzeko eskatutako udaleko obra-lizentzia emateko.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2024/23.- Baser Comercializadora de Ref. SA. Tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu-tasa, 4/2023.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/24.- Alkatetza-eskumenak lehen alkateordeari eskuordetzea, 2024ko urtarrilaren 19tik 31ra.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/25.- Totalenergies Clientes SAU. Tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu-tasa, 4/2023.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/26.-E.V.P. - Menagaraiko baserria zati batean berritzeko eskatutako obra-lizentzia izapidetzeko dokumentazio gehigarria eskatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2024/27.- Amurrioko Jabetza Erregistroa.- Udal-teknikariaren 2024/01/15eko txostena onestea, Luiaondoko hiri-finkari buruz eskatutako informazioaren erantzunari buruzkoa.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/28 . - Jose Julian Madariaga Goirigoizarri arkitektoaren aldi baterako lan-kontratua bajaran ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/29.- S.T.B. Aldi baterako lana kontratatzea, arkitektoa, 2023/24 EEP.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/30.-A.Z.A. - Llantenoiko finkan sarrera zolatua jartzeko obraren egikaritze-epeari luzapena ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2024/31.- Menagarai-Beotegiko administrazio-batzarra. - Beotegiko Zaballa auzoko 3. zenbakiko etxebizitzaren obra eta bizigarritasunaren txosten eta lizentzien kopiak; sustatzailea Juan Antonio Gorbea Urruela da.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2024/32.- T.M.I. eta . PF.V.M.- - Lizentziarik gabe nekazaritza eta abeltzaintzako jarduera egiteagatik hirigintzako antolamendua leheneratzeko espedientea ebatzea eta legezatzeko eskaera aurkezteko epea ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/33.- T.M.I. - Torre de Murga eraikinean hirigintzako antolamendua legezatzeko espedientea ebatzea eta bertako ekipamendua eta ostalaritza-jarduera legezatzeko dokumentazioa aurkezteko epea ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2024/34.- S.U.Z. 2024ko TMIZean hobaria ematea, minusbaliotasuna egiaztatzeagatik.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/35.- R.D.B. - Olabezarren familia bakarreko etxebizitza eraikitzeako emandako obra-lizentzia iraungitza jotzea.



ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/36.- Axpo Iberica SL. Tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu-tasa, 4/2023.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/37 . - Epearen luzapena ematea eta eskatutako bilketen ordainketa ezezte.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2024/38.- J.E.M. - Aparkatzeko txartela berritzea, iraungitzeagatik.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/39.- A.M.A. Administrazio Orokorreko teknikaria bitarteko funtzionario izendatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/40.- Erregistratutako fakturen kontabilitate-zerrenda onestea, F/2023/17.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/41.- Naturgy Energy. Tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu-tasa, 4/2023.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/42 Repsol Comercializadora de Electricidad y Gas.- Elektrizitate horniduragatik tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu-tasa, 4/2023.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/43.- Kultur ekimenetarako AFaren dirulaguntza eskatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2024/44.- E.N.U.- - Desgaitasunak dituzten ibilgailuak garraiatzeko ibilgailuak aparkatzeko txartela ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/45 Repsol Comercializadora de Electricidad y Gas. Gas-horniduragatik tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu-tasa, 4/2023.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/46.- Energía XXI Comercializadora SL. Tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu-tasa, 4/2023.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2024/47.- Soxoko administrazio-batzarra. - Soxoko bolatokian estalki berria jartzeko obrarako udalaren obra handiko lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/48.- Endesa Energía SAU. - Tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu-tasa, 4/2023.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/49.- Regsiti Comercializadora Eg SLU. Tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu-tasa, 4/2023.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/50.- Comercializadora Regulada Gas & Power. Tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu-tasa, 2023 ekitaldia.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/51.- Erregistratutako fakturen kontabilitate-zerrenda onestea, F/2023/18.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/52.- Aiaraldea Kooperatiba Elkartea.- Euskarazko sei hileko lantegi ludikoa kudeatu eta emateko zerbitzuaren kontratua adjudikatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/53.-M.D.S. - B motako eta 4.2 kategoriako arma-txartela ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2024/54.- M.D.S. - B motako eta 4.2 kategoriako arma-txartela bajan ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/55.- Udalerriko alderdi politikoei egindako ekarpen ekonomikoa, 2024ko urtarrila.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2024/56.- 2024ko urtarrileko nominen ordainketa likidoa



onesteia, langileak eta alkatea.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2024/57.- EEPko langileen kontratazioko 2024ko abenduko ordainsariak eta aparteko ordainsaria ordaintzea, 2023/24.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2024/58.- A.E.G. - Zuhatzako baserria berritzeko obrak amaitzeko epearen luzapena ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2024/59.- Arabako Foru Aldundiari Idazkaritza Kontuhartzaitzako lanpostua betetzeko estaturako gaikuntza duen toki-administraziooko funtzionarioa izendatzea proposatzeko prozedura hastea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/60.- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra, langileen eta alkatearen kotizazioa, 2023ko apirila.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2024/61. – Udalkideei ekarpen ekonomikoa egitea, 2024ko urtarrila.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/62.-E.V.P. - Menagaraiko baserria zati batean birgaitzeko obra hasteko udal-lizentzia ematea eta horretarako dokumentazioa eskatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/63.-I.M.M. - Luiaondoko La Torre kaleko 13 zenbakidun etxebizitza atxikiaren lehenengo solairua antolamendutik kanpo deklaratzeko eta hori erabiltzeko hirigintzako antolamendua leheneratzeko espedientea hastea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/64.-A.A.S. - Murgako baserriko estalkia birgaitzeko obra-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2024/65.- S.J.M. - Mendekotasuna duten pertsonentzako aparkatzeko txartela ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/66.- Alday Fundazioa. EALZren gastuak ordaintzea, 2023ko azaroa.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/67.- Alday Fundazioa. EALZren gastuak ordaintzea, 2023ko abendua.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/68.- 2023ko laugarren hiruhilekoko PFEZ atxikipenaren gastua onesteia.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2024/69.- 2023an zehar BEZaren urteko likidazioaren gastua onesteia.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2024/70.- MP.B.U. - Olabezarren aireko linea elektrikoan hormigoizko zutabea jartzeko zapata eraikitzeke udalaren obra-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/71.- Alday Fundazioa. EALZ kudeatzeko gastuetarako dirulaguntza ordaintzea, 2024ko urtarrila.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/72.- Elkarkidetza Pentsioak.- 2024ko urtarrileko likidazio-faktura onesteia.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/73.- Etxaurren Ikastolako guraso-elkartea. Talde psikopedagogikoaren eta bi urtekoen gelako laguntzailearen nominak ordaintzea, 2024ko urtarrila.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2024/74.- Etxaurren Ikastolaren eraikinean irisgarritasuna hobetzeko beharrezko jarduketak egiteko konpromisoa.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2024/75.- G.Z.A. - Informazio publikorako sarbidearen eskaera.



ALKATETZAREN DEKRETUA – 2024/76.- Aiaraldeko Euskalgintza Kontseilua.- Justifikatzeko dokumentazioa errekeritzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2024/77.- Aiaraldea Koop. Kontseilua.- Justifikatzeko dokumentazioa errekeritzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2024/78.- Babioko guraso-elkartea.- Justifikatzeko dokumentazioa errekeritzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2024/79 .- Asasam – Dirulaguntza justifikatzeko dokumentazioa errekeritzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2024/80 .- Valle Llanteno – Dirulaguntza justifikatzeko dokumentazioa errekeritzea.

Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) hartu du hitza eta 20. dekretuari buruz galdetu du.

Erantzun zaio bidaliko diotela.

Ez da horri buruzko iruzkin gehiagorik egin, eta Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

8.- Galde-eskeak

- Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) hartu du hitza adierazteko Aiara Dantza Taldeak haserrea adierazi diola, jakin dutelako Radio Llodioen bidez jaien pregoia egingo dutela. Adierazi du sentikortasun handiagoa izan behar delako elkarte-mugimenduarekin, eta pregoilaria izatea polita dela, eta ez da egokia elkartea horrela enteratzea, Udalaren jakinarazpena jaso beharko luke.

Prudencio Otegui Echevarría alkate jaunak (EH Bildu) hartu du hitza adierazteko elkarteko buruak deitu zuela eta azaldu ziola Aitziber bileran egon zenez jada adierazi ziola, hori izan zen akatsa, eta horixe esan zion Aiara Dantza Taldeko buruari, eta barkamena eskatu zion.

Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) berriz hartu du hitza adierazteko bileran Montsek aipatu zuela alkateak Aitziberri adierazi ziola Aiara Dantza Taldeari jakinarazteko, eta Aitziberrik dirudienez erantzun zion ez zuela taldean jarraitzen. Hala ere, uste du zeregin instituzionala dela, Montsek bilera horretan adierazi zuen bezala.

- Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) berriz hartu du hitza errepikatzeko Menagarai-Beotegiko eta Erretaiar elkartearen idazkia dagoela, eta alkateak bi Osoko Bilkuretan esan duela idatziz erantzungo dela, baina oraindik ez da egin.

Prudencio Otegui Echevarría alkate jaunak (EH Bildu) erantzun du berak erantzuteko agindua eman duela, eta ez dakiela horri buruzko gehiagorik.



Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH Bildu) hartu du hitza euskaraz adierazteko ados dagoela, zerbait idatziz badago idatziz erantzun beharko dela, eta gogorarazi du aurreko legealdian EH Bilduk idatziz behin baino gehiagotan erantzunik jaso ez zuten galderak egin zituztela.

- Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) hartu du hitza aipatzeko maiatzetik Luiaondon kalistenia parkea dagoela eskuragarri, eta galdetu du ea horren inguruan aurrera egin den.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH Bildu) euskaraz erantzun dio Otazun jarriko dela, zubiaren alboan, baina URARI baimena eskatu behar zaio oraindik.

- Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) hartu du hitza aipatzeko Arartekoren idatzia dagoela, ez dela erantzun, eta berriro ere galdetu dute. Adierazgarria da Arartekoari ez erantzutea.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH Bildu) euskaraz erantzun du etxera joan zela aparejadorearekin egoera egiaztatzeko, eta kontu zaila da, Ekainekin hitz egin dute, horrekin nola doan jakiteko.

Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) erantzun duela ez dela espedientearen izapidetzeari buruz ari, Arartekoaren erantzunari buruz baizik.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH Bildu) euskaraz erantzun du erreklamazio hori heldu dela herritar bat bere garaian hiru aldiz jarri zelako harremanetan Udalarekin, salatuz eraikina erortzeaz zegoela eta ez zuela erantzunik jaso, horregatik azkenean Arartekora jo du.

- Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) berriz hartu du hitza eta aipatu du Lanbiden Kuadrillarako enplegu-eskaintza argitaratu dela, epe zehatz batekin, eta Aiarako herritarrei jakinarazi zaiela, zuzeneko berriak izateko. Hori dela eta, eskatu da horrelako eskaintzak ahalik eta gehien zabaltzea herritarren artean. Horretaz gain, ez zuten eskaintzaren berri, ez delako Enplegu batzordean aipatu, ez baita horrelakorik egon.

Prudencio Otegui Echevarría alkate jaunak (EH Bildu) adierazi du Aiarako herrietako guztiek zekitelako, eta webgunean argitaratu zela.

Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) berriz hartu du hitza eta adierazi du Udalaren webgunean dagoela eta informazio hori ez dela agertzen.

- Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) hartu du hitza aipatzeko Aranzadi Elkarte berarekin harremanetan jarri dela aipatzeko ez dutela lankidetzaz hitzarmenaren ordainketa jaso, nahiz eta jada justifikazioa aurkeztu duten.

Idazkari andreak aipatu du justifikazioa berrikusteke dago eta dagokiona ordaindu behar dela.



- Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) berriz hartu du hitza eta adierazi du aurreko legealdian aurpegiatzen ziotela dena eginda aurkezten zela batzarretan. Eta orain, gertatzen ari dena ez dagoela ezta batzorderik ere. Ez zuten LPSen alegazioen beri izan, ez legoke txarto batzorde baten bidez jakin izatea, batzarrekin egindako bileran jakin zuten aurrekontuari ekarpenak egiteko plantilla bidaliko ziotela, eta ez da Ogasun batzorderik egon. Ezin izan diote ekarpenik egin plantilla horri, hala nola, aurrekontua bidaltzen duen pertsona adierazteko generoa adierazteko gelaxka, generoaren arabera banakatutako datuak bildu ahal izateko, adibidez.

Gaineratu du ez dela informazio batzorderik egon guzti horretarako, eta uste du ergelkeria dela. Ez dakite altuerako inausketak hasi diren edo ez.

Prudencio Otegui Etxevarría alkate jaunak (EH Bildu) erantzun du inausketa hori egingo dela orain hasiko den COLVUS programaren taldeko pertsonekin.

- Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) berriz hartu du hitza adierazteko eskaera egin zela Administrazio-batzarrei 2023ko azaroaren 22an Osakidetza emandako erantzunaren berri egiteko, eta ez da egin, gutun osoa batzar guztiei bidaltzea eskatu zen, eta eskatu dute dokumentu hori aktari eranstea.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH Bildu) haiek uste dutela eragindako Administrazio-batzarrei bidali behar zaiela, eta erantzunaren laburpena bidali zieten.

Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) aipatu du harrigarria dela, laburpenean paragrafo hau falta baita: “Arreta integrala, jarraitua eta kalitatezkoa eskaintzeko herritarrekin daukagun konpromisoari lotuta planteatzen duzun aldaketari gure erabiltzaileenganako arduragabeko egintza deritzogu, izan ere, gure osasun-zerbitzuaren kalitatezko lehen mailako arretarako estrategiaren aurka doa”.

Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) aipatu du Laudioko klub batek eskera egin zuela eta ez duela erantzunik jaso.

Prudencio Otegui Echevarría alkate jaunak (EH Bildu) erantzun du Iñaki Iasirekin hitz egin zuela eta erantzun ziotela pista erabil zezaketela, baina aldagelak ez, ez direlako udalerrikoak, eta Udaleko funtzionario bati idatzizko erantzuna emateko agindu zuen.

Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) aipatu du ez duela erantzuna ikus irteera-erregistroan, eta eskatu du idazkiak erantzuteko ardurua Udaleko funtzionarioei ez ematea, mesedez. Galdetu du ea instalazio horiek erabili ahal izateko irizpide gisa elkarte udalerrikoa den edo ez erabiliko den. Aiarakoak ere beste udalerrri batzuetara doazelako. Horregatik, galdetu du ea oraindik aurrera irizpidea hori izango den, eta guztiei hala erantzungo zaien.

- Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) berriz hartu du hitza galdetzeko Alday Fundazioari egiteke dagoen ordainketari buruz, eta galdetu du ea zergatik ez den ordaindu ahal izateko kredituaren aldaketa onetsi, eta eskatu du behar den baino gehiago ez luzatzeko.



Prudencio Otegui Echevarría alkate jaunak (EH Bildu) erantzun du lehenbailehen ordaintzeko asmoa duela.

Iñigo Pinedo Vadillo zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) hartu du hitza adierazteko kredituaren aldaketa hori egin ezean ezingo dela ordainketa egin. 2023. urtean partidaren gehikuntza egin ez zenez, Informazio Batzordean adierazi zen bezala, orain aurrekontu-aldaketa hori egin beharko da.

Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) aipatu du Eguneko Arretarako Landa Zentroa kudeatzeko hitzarmen hori urtero onetsi dela, eta batez ere azkenetan, Aldundiak diruz laguntzen duena dena dela ahalegin ekonomiko handia eginez.

Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) galdetu du ea gobernu-taldeak Luiaondoko geltokiari buruzko informazioa duen, Diputatuen Kongresuko EAJ-PNV taldeak Luiaondoko geltokia egokitzeko partida ekonomikoa sartu zuelako, irisgarritasuna hobetzeko eta abar. Eta horregatik, galdetu du ea horri buruzko informaziorik duten.

Prudencio Otegui Echevarría alkate jaunak (EH Bildu) erantzun du ez duela horren berririk.

Gentza Alamillo Udaetan zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) erantzun du otsailaren zazpitik ADIFen idazkia dagoela, Udalarekin gai hori jorrazteko elkarrizketa eskatuz.

- Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) berriz hartu du hitza aipatzeko Administrazio-batzarren bileran honako hau adierazi zela hitzez hitz: “AOTren lanpostua teknikoa da, ez administraziokoa, ez dago paperak betetzeko”. Eta, gaineratu du asko harritu zuela adierazpen horrek, horixe delako aurreko legealdiko Osoko Bilkura batean aipatu zenak, eta horri buruz Aiara Batuzek erantzun izugarria eman zigula; hortaz, orain galdetu du ea zer iritzi duen Aiara Batuzek horri buruz, oso harrituta dagoelako.

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (Aiara Batuz) hartu du hitza aipatzeko Idazkariak batzorde batean emandako hitz berdinak direla. Gaineratu du haiek lanpostu hori sortzea adostu zutenean Batzarren beharrei buruz aritu zutela, eta adostasun batera heldu zirela. Karmelek Batzarren bileran aipatu zuen eta beren beharrak galdetu zizkien, eta adierazi zien idatziz ekartzeko; hortaz, eztabaida oraindik irekita dago, gu ez dagoelako ados pertsona bakar batek lan tekniko guztia egitearekin.

- Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) berriz hartu du hitza eta aipatu du Euskara Batzordean, unean Euskara teknikaria ez izateari buruz, uste dutela gobernu-taldeak gauza gehiago egin ahal izan zituela, eta Araba Euskaraz, Nafarroa Oinez, Herri Urrats, Euskal Eskola Publikoaren Jaia eta abarren bezalako 2023ko partidak daudela egikaritu gabe. Horri buruz, Karmele Poblaciónek aurreko legealdian esku-hartze bat egin zuen, adieraziz Udalak zerbait egin beharko lukeela Euskara teknikaria ez egoteagatik. Hortaz, gehitu du, badirudi Euskara teknikaria izan gabe jarraitzen dutela, eta badirudi alde batean daudenean denak direla betebeharrak, eta bestean, aitzakiak besterik ez.



- Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) berriz hartu du hitza aipatzeko Lehen Sektoreko Batzordean, HAZIri laguntza eskatzeari buruzko aipamena egin zela, eta ez zenez informazioa eskuratu, Batzordeko buruak eman zuela, baina ez denez batzorde gehiagorik egon, proiektu horrekin dituen kezka eta zalantzak adierazi nahi ditu; izan ere, Udala sustatzaile gisa agertzen da, baina ez dakite zein izango den finantzaketa, 136.000 euro higiezinatarako bakarrik (pabiloia, ibilgailua, etab.) izango dira, 42.000 euro kudeaketarako, eta hori lehenengo urterako bakarrik, eta gero gainera lekuaren alokairua lizitatu behar da. Gaineratu du proiektu horrek izango duen figurari buruzko zalantza juridiko asko dituela, ez danielako Udalak parte hartuko duen eta kapital gehiena duen sozietate publiko bat aukeratuko duen, eta aukera pribatuak daude. Gainera, bitxia da lizitazioan aintzat hartu beharreko gauzak agertzen direla, hau da, ia-ia etorkizunerako lizitazioaren agiri teknikoak egiten ari dira, eta pixka bat harrigarria da hori, Udalak berak egin beharko lukeelako. Oso harrigarria da adieraztea defizitarioa izango dela eta Aiarako Udala izango dela defizit hori bere gain hartuko duena. Horretaz gain, nahiko bitxia iruditzen zaio adierazten dela Udaleko funtzionarioek egingo dituztela guzti horren administrazio-izapideak, Udalak duen lan-kargarekin, gainera guzti horren administrazio-egituraz arduratu behar badira, ba, nahiko harrigarria iruditzen zaio.

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (Aiara Batuz) aipatu du bidalitako dokumentua dirulaguntza eskatzeko memoria dela, eta jasoko dugun ala ez esaten digutenean, ikusiko da zer egingo den. Gaineratu du lehen sektorearen beharrak biltzen egon direnean ikusi dela banaketa eta biltegiratzeko zentroa eta baterako dinamizazioa behar dela.

Zinegotzi andreak jarraitu du adieraziz hori guztia lehen sektorearekin egindako bilera batetik atera zela, eta HAZIren laguntza-programen bidez finantzaketa lortzeko aukera ikusi dute. Aipatu du LGErekin bildu zirela gaia aztertzeko, eta ondorioztatu zen zentro horretarako tokirik aproposena Murgan zegoela. Momentuz, proiektuak ez du inolako gasturik sortu. Eta aztertzen ari dira zein figura juridiko hartuko den.

Gentza Alamillo zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) aipatu du harritzen duela hain garrantzitsua den zerbait Informazio Batzorde batean ez aurkezteak, aurkeztu ostean helarazi zaielako.

- Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) hartu du hitza eta adierazi du Batzar Nagusien taldearen bidez jakin duela, hortaz, ez da ezer adierazi Batzordeetan, Aiarako alkatea eta LGeko burua agertu dira Batzar Nagusietan, errepideen arazoa jorratzeko, eta ez zuten asmo horren berririk.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH Bildu) euskaraz aipatu du jada batzorde batean esan zela arazoa azaltzeko joango zirela.

Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) erantzun du batzordean ezan zela Aldundiko dagokion Sailarengana joko zela, ez Batzar Nagusietan bertaratuko zirela. Gaineratu du arazoaren zati bat partekatu ahal dutela, eta gustatuko litzaiekeela batzorde batean eztabaidatzea, horri buruzko ekarpenak egin ahal izateko.



Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH Bildu) hartu du hitza euskaraz adierazteko uste duela horri buruzko zerbait egin behar dela, eta oposizioak zerbait egin nahi badu, elkarrekin egin dezaketela.

Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) aipatu du arazo hori asko landu zutela aurreko legealdian, dagokion diputatuarekin eta zerbitzuburuarekin, eta harrিতuta dago LGEko ordezkari gisa aritu izanagatik, gerta litekeelako LGEko beste kideen iritziak islatuta ez egotea.

Iñigo Pinedo Vadillo zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) Karmele Landa Garapenerako Elkarteko ordezkaria izan bazen, LGEa osatzen dutenen iritzi adostua aurkeztu behar izango zuela, eta, bestela, Aiarako Udaleko alkateorde gisa aurkeztu behar izango luke bere burua.

- Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) berriz hartu du hitza aipatzeko Ermandadearen Batzarraren deia egin dela datorren astearterako, eta ez da Informazio Batzorderik egin Aiarako Udalak Ermandadearen Batzar horretan izango duen jarrera adosteko; aurreko legealdietan eskatu zen Ermandadearen Batzarretan aurkezten zen Aiarako Udalaren jarrera adostua izan zedila, Udaleko kide guztien artean; hortaz, adierazi du bitxia iruditzen zaiola orain horrela jardutea.

- Iñigo Pinero Vadillo zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) hartu du hitza eta esan du hirigintza batzordea deitu ez denez, hainbat galdera dituela horri buruz. Lehenengo galdera Hirigintza Batzordeko buruari zuzendua, jakiteko ea teknikariekin aurreko Osoko Bilkuran aipatutako gaia begiratu ahal izan duen.

Izaskun García Aresti zinegotzi andreak (Aiara Batuz) ezetz erantzun du.

Iñigo Pinedo Vadillo zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) eskatu du segurtasunari buruzko txostena egin dadila hori izan baitzen Ikastolaren hesien trazaketa aldatzea eragin zuena.

Izaskun García Aresti zinegotzi andreak (Aiara Batuz) erantzun du teknikariak jada egin duela eta bidaliko zaiela.

- Iñigo Pinedo Vadillo zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) galdetu du ea nola dagoen Plan Orokorren espedientea, ea zerbait aurreratu duten.

Izaskun García Aresti zinegotzi andreak (Aiara Batuz) erantzun dio ez dago berririk.

- Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) hartu du hitza aipatzeko baserrietan suhiltzaileek egindako jarduketan aurrean, eskaera erregistratu da, eskatuz Aiarako Udalak laguntza-ildo baterako deialdia egin dezan, urtean behin tximiniak garbitzeko gastuen zati bat ordaintzeko, suteak prebenitu ahal izateko eta ondasuna kontserbatzen laguntzeko. Proposatutako zenbatekoa 10.000 euro ingurukoa da.



- Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH Bildu) hartu du hitza euskaraz adierazteko Ferosca Ik Aiaran parke eolikoa instalatu nahi duela, eta Udalak ingurumen-azterlana jaso duela, eta horri buruzko alegazioak egiteko epea dagoen jakin nahi du. Gaineratu du alegazioak egingo dituztela, ez dutelako argi parke eolikoa instalatu daitekeen edo ez.

- Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH Bildu) euskaraz adierazi du URAk eta Errepideak dagoeneko Ikastolaren alboan dagoen zuloa betetzeko baimenak bidali dituztela, eta Ingurumen Sailaren baimena falta da, nahiz eta uste duten ez direla azko berandutuko.

Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) aipatu du hor zerbait egiten badela, BTT elkartearekin koordinatuz egin dadila, hor egingo diren probak eta ciclocrosserako.

- Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (Aiara Batuz) hartu du hitza aipatzeko idatziz bidaliko dutela Kuadrillan adierazitakoa, eta azaldu du alkateari eskatuko diotela Kuadrillaren gobernu-batzarrari eskatzeko ikastetxe publikoetan egin ohi diren prestakuntza-jardunaldietarako partidak gaitzea, eskualdeko ikasle eta herritar guztiengan eragiten duten eta itunpeko zentroak ere biltzen dituzten prestakuntzak egiteko.

Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) hartu du hitza aipatzeko bere ustez administrazio bakoitzaren eskumenak aztertu behar direla, abian jarri zen lehenengo aldi puntuala zela adierazi baitzen. Ikusi beharko da ea eskualdeko beste kolektiboen baterako prestakuntza nahi izango duten, adibidez eskualdeko familia-medikuek edo suhiltzaileek; aitortu den bezala, ikastetxeek dirua dute prestakuntza horiek ordaintzeko, eta heziketako langileen prestakuntzarako eskumena hezkuntza sailak du; hortaz, uste dute etorkizunean ondorioak izan ditzakeen aukera irekitzea da. Uste dute prestakuntza beharrezkoa dela, eta arduraduna Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila izango da.

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (Aiara Batuz) hartu du hitza aipatzeko Aiara Batuzek proposamena egin duela Euskal Eskola publikoaren zuzendari guztiek egindako analisiaren ondoren, haur-eskolatik bigarren hezkuntzara sartu arte fase eta zentro ezberdinetatik igarotzen baita, banaka, eta irakasleei ez zaie banaka jasotako prestakuntza hori helarazten. Hortaz, proposamena da eskualdeko irakasle guztiek, larunbateko goiz batean prestakuntza hori izateko aukera izan dezaten, haiek garrantzitsutzat jotako gaietan, beharbada banaka eskuratu ezingo luketeelako prestakuntza hori eskuratu. Zehazki, proposamena da eskualdeko ikastetxe guztien prestakuntzarako kudeaketa koordinatuaren alde egitea.

Iñigo Pinedo Vadillo zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) hartu du hitza aipatzeko gaia jorratu zen batzordean adierazi zela Kuadrillaren Tokiko Gobernu-batzarrera joatea horri buruz erabakitzeke, eta Gobernu-batzarrak ezetz esan du, ez dutelako aurrekontuan sartu.

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (Aiara Batuz) aipatu du ez dela Gobernu-batzar batean ere eztabaidatu. Hori dela eta, Aiarako Alkateari eskatuko diote proposamena Kuadrillaren Tokiko Gobernu-batzarrera eraman dezala.



Jorrazeko beste aztergairik ez dagoenez, alkate-udalburuak bilera bukatutzat eman du hogueiak eta berrogeita hamar minutu direnean, eta aztertutako guztia eta hartutako erabakiak jasota gera daitezen, akta hau egin dut eta neuk, idazkariak, egiaztatzen dut, Arespalditzan, bi mila eta hogueita lauko otsailaren hogueita bian.

O. E.

ALKATE-UDALBURUA,

Stua.: Prudencio Otegui Echevarría.

IDAZKARIA,

Stua.: Naiara Lazpita Marcos.



I. ERANSKINA: EGINDAKO ESKAERARI OSAKIDETZAK IDATZIZ EMANDAKO ERANTZUNA.



BARRUALDE-GALDAKAOKO ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA BARRUALDE-GALDAKAO

AIARAKO UDALA
Prudencio Otegui Echevarria Jn.
Bº La Iglesia, 3
01478 ARESPALDITZA

Alkate jauna:

Ospitaleko arreta aldatzeko egin diguzun eskaerari dagokionez, orain arte egin ditugun bileretan jakinarazi dugun bezala, aldaketa ezinezkoa da, egun daukagun antolamendu sanitarioarekin.

Antolamendu horrek, Aiara plaza berria sortzea aurreikusten duenak, hauxe du oinarri: Aiara hartzen duen eremuko biztanleria zaharra dela, oro har; baserrien arteko distantzia handiak, eta morbiditate-/gaixotasun-maila handia. Horren argitan, eremu horretako 920 erabiltzaileentzako lehen mailako arretako plaza berria sortu da, kalitatezko arreta irisgarritasunaren eta asistentzia-jarraitutasunaren printzipioetan oinarritutakoa emateko.

Proposatzen diguzun plangintza- eta antolamendu aldaketak zera ekarriko luke: antolamendu hori aurrekora eramatea berriz, eta, ondorioz, eremuko mediku bat galtzea. Hori horrela, identifikatu diren osasun-arretako beharrek ondo baino hobeto justifikatzen duten prestaziorik gabe geldituko lirakeke aipatu 920 pertsonak.

Arreta integrala, jarraitua eta kalitatezkoa eskaintzeko herritarrekin daukagun konpromisoari lotuta planteatzen duzun aldaketari gure erabiltzaileenganako arduragabeko egintza deritzogu, izan ere, gure osasun-zerbitzuaren kalitatezko lehen mailako arretarako estrategiaren aurka doa.

Jaso ezazu agur bero bat.

Estimado Sr Alcalde.

En relación con la petición que nos realiza del cambio de atención hospitalaria, como hemos comunicado en las reuniones que hemos mantenido no es posible con la ordenación sanitaria establecida.

Dicha planificación con la creación de una plaza nueva en Aiara es debido a que se identifica que Aiara es una zona con población envejecida, con mucha distancia entre los caseríos y con un grado de morbilidad/enfermedad elevado, que justifica una nueva plaza de atención primaria para los 920 personas usuarias de dicha zona; para una atención de calidad, basada en los principios de accesibilidad y continuidad asistencial.

El cambio de planificación y ordenación que nos plantea, supondría un cambio de dicha ordenación a la anterior que implicaría la pérdida de un/a profesional médico/a en la zona y se dejarían de beneficiar las 920 personas de un servicio que está más que justificado por las necesidades de atención sanitaria identificada.

En nuestro compromiso con la ciudadanía para dar una atención integral, de continuidad y calidad, este cambio lo consideramos un acto de irresponsabilidad hacia nuestras personas usuarias, y que iría en contra de la estrategia de atención primaria de calidad de nuestro servicio de salud.

Reciba un cordial saludo.

Galdakaon, 2023ko azaroaren 21ean.

Miren Martínez Ayuso.

Barrualde-Galdakaoko ESIko Arreta Integratuaren zuzendaria

Directora Atención Integrada OSI Barrualde-Galdakao

I.F.K. C.I.F. P0101100F

☒ Bº La Iglesia, 3 - 01476 Arespalditza (Araba) - ☎ 945399013 - 📠 945399331 - ✉ info@aiarakoudala.eus - 🌐 www.aiarakoudala.eus